



TOLOSAKO
UDALA

OHIKO OSOKO BILKURA

2018.12.27

Tolosako Udaletxean, 2018ko abenduaren 27an, 20:00etan, lehen deialdia egin ondoren, Udaltzaga bildu da Ohiko Osoko Bilkura egiteko. Mahaiburu Korporazioko alkate-lehendakari Olatz Peon Ormazabal izan da eta ondorengo gaiak aztertzeko udal batzarkide hauek agertu dira:

En la Casa Consistorial de Tolosa, a las 20:00 horas del día 27 de diciembre de 2018, se reúne el Ayuntamiento Pleno en sesión ordinaria y primera convocatoria, bajo la presidencia de la alcaldesa Olatz Peon Ormazabal, y la asistencia que se expresa, a fin de tratar sobre los puntos del orden del día que se relacionan:

Alkate-lehendakaria:
Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:

Jokin Azkue Arrastoa
Nerea Letamendia Belloso
Patxi Amantegi Zubiria
Nuria Carbonell Miranda
Iñigo Alonso Sarasibar
Joseba Koldo Ormazabal Lopez
Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga
Begoña Tolosa Mendia

Ibai Iriarte San Vicente
Lore Agirre Zipitria
Onintza Lasa Arteaga
Iñaki Irazabalbeitia Fernandez
Igor Ezenarro Balda
Kristina Pelaez Errazkin
Pedro Manuel Etxabe Zabala
Cristian Fernandez Susin

Idazkaria:
Begoña Garmendia Vazquez

Kontuhartzailea:
Ainhoa Molinos Zubiaurre

Eguneko gaia zerrenda

1. Kiroletako ordenantza espezifikoa eta bere eranskinen aldaketak hasieraz onartzea.
2. 2019ko Aurrekontu Orokorren hasierako onarpena.

Orden del día

1. Aprobación inicial de la modificación de la ordenanza específica de Deportes y sus anexos.
2. Aprobación del presupuesto general para el año 2019.



- | | |
|--|--|
| 3. 2018/17 kreditu gehigarrien modalitatean egindako kreditu aldaketaren espedienteari buruzko 2018/2242 zenbakidun alkatetza dekretuaren jakinarazpena. | 3. Dar cuenta del Decreto de Alcaldía 2042/2018 que hace referencia al expediente sobre la modalidad de crédito adicional 17/2018. |
| 4. Alkatetzako dekretu hauen berri ematea: 2018ko azaroaren 1etik 30era. (2018/2.055 – 2018/2.202). | 4. Notificación de los decretos emitidos por la Alcaldía del 1 al 30 de noviembre de 2018 (2018/2.055-2018/2.202). |
| 5. Mozioa: Auzitegi Gorenaren adierazpena. | 5. Moción: Declaración del Tribunal Supremo. |
| 6. Galderak eta eskaerak. | 6. Ruegos y preguntas. |

Segidan, lehendakariak batzarrari hasiera eman dio ondorengo gaiak aztertzeko:

- | | |
|--|---|
| <u>1. Kiroletako ordenantza espezifiko eta bere eranskinen aldaketak hasieraz onartzea.</u> | <u>1. Aprobación inicial de la modificación de la ordenanza específica de Deportes y sus anexos.</u> |
|--|---|

Parte-hartzeak:

... Cristian Fernandez Susin (Kiroiak zinegotzia): *“Aldaketa proposamen hau egiten da gehienbat dirulaguntzak eskatzeko tramiteak errazteko eta sinplifikatzeko. Aldaketak eranskinaren honako atal hauei eragiten dio: lehenengoa, eskaerarekin batera eskatu beharreko dokumentu kopurua murriztu eta sinplifikatu egiten da, hori mesedegarria da denontzat. Bigarrena, Tolosako ikastetxeetako eta klubuen egungo errealitatea kontutan hartuta irizpide eta puntuazioaren egokitasun zintzoena bermatzea eta azkenik, dirulaguntzaren ordainketa eta justifikazioari ere eragiten die.”*

KIROL BATZORDE INFORMATIBOAREN 2018KO ABENDUAREN 18KO IRIZPENA

Aurrekariak

Tolosako Udalak, 2017ko apirilaren 25eko udal batzarraren erabakiz dirulaguntzen ordenantza orokorrarekin batera, kirol zerbitzuko ordenantza espezifiko eta bere eranskinak onartu zituen. Hain zuzen ere, honako lau lerroak bereizten dira:

1. Klubuen egiturak indartzeko eta garatzeko (1. eranskina)
2. Eskola kirolaren kudeaketarako egitura espezifikoak sortu eta garatzeko (2. eranskina)



TOLOSAKO
UDALA

3. Kirol jarduera bereziak antolatzeko (3. eranskina)
4. Igeriketa kanpaina gauzatzeko (4. eranskina)

Udalbatzarrak, 2018ko maiatzaren 29an egindako Osoko Bilkuran, kiroltako ordenantza arautzaile eta eranskinetan egindako aldaketak onartu zituen.

Kirol teknikariak, 2018ko azaroaren 30ean egindako txostenean proposamena egin du, Tolosako Udalerriko irabazi asmorik gabeko, kirola sustatzeko diru laguntzak norgehiagoka-araubidez emateko ordenantza berezia aldatzeko. Funtsezko arrazoi nahikoa badago, 2018ko maiatzaren 29an Udal batzarrak onartutako kiroltako diru-laguntzen ordenantza espezifiko eta bere eranskinen aldaketa proposatzeko.

Arrazoi hauen artean esanguratsuenak honako hauek: eskatzaileek aurkeztu beharreko dokumentu kopurua murriztu eta sinplifikatzea alde batetik, Tolosako ikastetxe eta klubien egungo errealitatea kontutan hartuta, irizpide eta puntuazioen egokitasun zintzoena bermatzea, bestetik.

Hortaz gainera, balorazioa justu eta objetiboena lortzeko asmoz, indikadore edo irizpide batzuen moldaketa egin da proposamen berrian.

Proposatzen diren aldaketak, eranskinen honako atalei eragiten die gehien bat:

1. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentuei
2. Irizpide eta puntualei
3. Diru-laguntzaren ordainketa eta justifikazioari

Aldaketak, txosten teknikoak xedatutakoak dira.

AZTERKETA JURIDIKOA

1.- Oinarri juridikoa eta Udalaren eskumena

Toki-Administrazioaren Arrazionalizazioa eta Iraunkortasuna arautzen dituen abenduaren 27ko 27/2013 Legea indarrean sartu ondoren, aipatu Administrazioaren Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen eskuduntzen sistema aldatu egin zen. Zehazki, ondoko aldaketa hauek eragin zituen lege berriak:

- 1- udal eskumenen sailkapena egin zituen: udalen eskumenen artean berezkoak, delegatuak, eta bestelakoak berezi ditu lege berriak.
- 2- udalen berezko eskumenen gaiak murriztu egin ditu.
- 3- udalen eskumenen egikaritza ekonomia eta finantza jasangarritasunaren irizpideen menpe jarri ditu.

Era honetan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikulua 2. atalari idazketa berria eman zion Arrazionalizazio lege horrek, eta gai-zerrenda bat osatu zuen, non udalek berariazko eskumenak egikarituko baitzizuten. Gai horien artean, 25.2 artikulua 1) atalak udalek, besteak beste, "kirol sustapena eta kirol ekipamendu" arloan eskumenak beteko dituztela xedatzen du, betiere, Estatu eta Autonomia Erkidegoko legedian ezarritako moduan.



Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko entitateei aplikagarria zaien Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikulua udalerrien eskumen propioak arautzen ditu eta horiek zein esparru materialetan erabili ahal izango dituzten eskumen propioak zehazten ditu; 25. atalean, kirola eta kirolari buruzko ekipamenduari buruzko politikak sustatzea hain zuzen ere.

2.- Udalaren sustapen-neurriak eta diru laguntzak

Toki-Korporazioen Zerbitzuen Erregelamendua arautzen duen 1955eko ekainaren 17ko Dekretuaren 24 eta hurrengo artikuluek, udalen sustapen-egintza onartu eta xedatzen dute, horien barruan diru laguntzak emateko ahalmena onartzen zaielarik. Bestaldetik, era orokorrean, herri-administrazioen laguntzak ondoko bi araudi nagusi hauek arautzen dituzte:

1. Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra
2. Lege hori garatzen duen 2006ko uztailaren 21eko Erregelamendua

Herri Administrazioen diru laguntzak arautzen dituen Legearen 9.2 artikulua, diru-laguntzak eman aurretik, haien emakida arautzen duen oinarri arautzaileak onartzearen beharra xedatzen du. Aipatu artikulua 3. atalak, oinarrien publikitatea arautzen du, dagokion Aldizkari Ofizialean argitaratu behar direlarik. Kasu honetan, oinarri arautzaile hauek dagokien Ordenantzan jaso dira.

Oinarrien gutxieneko edukia Legearen 17.3 artikuluan arautzen da:

3. La norma reguladora de las bases de concesión de las subvenciones concretará, como mínimo, los siguientes extremos:

- a) Definición del objeto de la subvención.*
- b) Requisitos que deberán reunir los beneficiarios para la obtención de la subvención, y, en su caso, los miembros de las entidades contempladas en el apartado 2 y segundo párrafo del apartado 3 del artículo 11 de esta ley, y forma y plazo en que deben presentarse las solicitudes.*
- c) Condiciones de solvencia y eficacia que hayan de reunir las personas jurídicas a las que se refiere el apartado 2 del artículo 12 de esta ley.*
- d) Procedimiento de concesión de la subvención.*
- e) Criterios objetivos de otorgamiento de la subvención y, en su caso, ponderación de los mismos.*
- f) Cuantía individualizada de la subvención o criterios para su determinación.*
- g) Órganos competentes para la ordenación, instrucción y resolución del procedimiento de concesión de la subvención y el plazo en que será notificada la resolución.*
- h) Determinación, en su caso, de los libros y registros contables específicos para garantizar la adecuada justificación de la subvención.*
- i) Plazo y forma de justificación por parte del beneficiario o de la entidad colaboradora, en su caso, del cumplimiento de la finalidad para la que se concedió la subvención y de la aplicación de los fondos percibidos.*
- j) Medidas de garantía que, en su caso, se considere preciso constituir a favor del órgano concedente, medios de constitución y procedimiento de cancelación.*



k) Posibilidad de efectuar pagos anticipados y abonos a cuenta, así como el régimen de garantías que, en su caso, deberán aportar los beneficiarios.

l) Circunstancias que, como consecuencia de la alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, podrán dar lugar a la modificación de la resolución.

m) Compatibilidad o incompatibilidad con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales.

n) Criterios de graduación de los posibles incumplimientos de condiciones impuestas con motivo de la concesión de las subvenciones. Estos criterios resultarán de aplicación para determinar la cantidad que finalmente haya de percibir el beneficiario o, en su caso, el importe a reintegrar, y deberán responder al principio de proporcionalidad.

Jardunbideari dagokionez, Legearen 22. artikuluan xedatutakoaren arabera ohiko sistema lehiarena izan arren, artikuluan honen azkeneko paragrafoak ondoko hau xedatzen du: "Excepcionalmente, siempre que así se prevea en las bases reguladoras, el órgano competente procederá al prorrateo, entre los beneficiarios de la subvención, del importe global máximo destinado a las subvenciones.

Azkenik, Gardentasuna, Informazio Publikoa Eskuratzea eta Gobernuaren arautzen dituen abenduaren 19ko 9/2013 Legearen 8. artikulua Diru laguntzen Lege Orokorraren araudia aldatu du, informazio-esparrua zabaldu duelarik. Era honetan:

Artículo 8 Información económica, presupuestaria y estadística

1. Los sujetos incluidos en el ámbito de aplicación de este título deberán hacer pública, como mínimo, la información relativa a los actos de gestión administrativa con repercusión económica o presupuestaria que se indican a continuación:

c) Las subvenciones y ayudas públicas concedidas con indicación de su importe, objetivo o finalidad y beneficiarios.

Beraz, udalak argitaratu beharko ditu Gardentasunaren Atarian (*Gipuzkoa Irekian*) ordenantza honetan oinarrituta ematen duen diru laguntzen zerrenda, beti ere onuradunen izaera pertsonaleko datuen erreserbari buruz Legerian araututakoa kontutan hartuz.

3.- Ordenantzaren izapidetzea

7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 49. artikuluan xedatzen du Ordenantzak onartzeko jardunbidea, ondokoaren arabera:

- Hasierako onespina, Plenoari dagokiona, aipatu Legearen 22.2.d) artikuluan araututakoaren arabera.
- Informazio publikoa eta interesatuen entzunaldiko epea, 30 lanegunekoa, erreklamazio eta iradokizunak aurkez daitezzen.
- Aurkezturiko alegazioak ebatzi eta Ordenantzaren behin betiko testua onartzea, udalbatza plenoari dagokiona.
- Informazio publikoko epea iragan eta inolako erreklamaziorik ez balitz aurkeztuko, Ordenantza behin betikotzat onartua emango da.



TOLOSAKO
UDALA

4.- Organo eskuduna

Goian aipatu den moduan, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 22.2.d) artikuluan xedatutakoaren arabera, kiroltako Ordenantza espezifikoak eta bere eranskinen aldaketan hasierako onspena udalbatza plenoaren eskumena da.

Beraz,

PROPOSAMENA

Lehenik: Kiroltako Ordenantza espezifikoak eta bere eranskinetan xedatuak azaltzen diren aldaketak hasieraz onartzea.

Bigarrena: Ordenantza hauen aldaketak eta dagokion espedientea informazio publikoan jartzea hogeita hamar laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik hasita, herritarrek aztertu eta erreklamazio edo iradokizunak aurkez ahal ditzaten.

Hirugarrena: Erabaki hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan eta Tolosako Udalaren web orrian argitaratzea.

Laugarrena- Xedatzea epe horretan ez badago alegaziorik behin betiko onartuta daudela ulertuko da.

Irizpen hau Kirol batzordean aztertu eta bozkatu da, 2018ko abenduaren 18an egindako bilkuran, bozketaren emaitza honako hau izan zelarik:

Aho batez eta aldeko botoa eman duten zinegotziek: Cristian Fernandez, Patxi Amantegi, Maite Ruiz de Eguilaz, Nuria Carbonell, Onintza Lasa eta Peio Etxabe.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda, Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Ibai Iriarte San Vicente, Lore Agirre Zipitria, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** hasieraz Kiroltako ordenantza espezifikoak



TOLOSAKO
UDALA

eta bere eranskinen aldaketak.

2. 2019ko Aurrekontu Orokorraren hasierako onarpena. **2. Aprobación del presupuesto general para el año 2019.**

Parte-hartzeak:

... Begoña Tolosa Mendia (Ogasun zinegotzia): “Aldez aurretik, urtero egiten dugu bezala, eskertu aurrekontu hauek prestatzeko unean departamentu guztiak eginiko lana. Aurreko aurrekontuak alkateak esan duen bezala, legealdi honetako azkenengo aurrekontuak dira, orain eta hemen aurkezten ditugun aurrekontu guztia 26.194.882,00 eurokoa dira. lazkoarekin alderatzen badugu %6,8 hazkundera du. Igoera batez ere Foru Aldunditik jasotzen dugun ekarpenarekin lotuta dagoena. Aurten jaso dugu milioi bat euro gehiago, Lurraldeko ekonomia eta zerga bilketa martxa onen duela adierazten duena. Urtero esaten dugu bezala aurrekontuak izan behar duela orekatuak, dirua sarrerak eta gastuak orekatuak, sarrerak gastuak izan behar dute gastuak baino handiagoak edo berdinak izan behar dute. Gure kasuan diru-sarrerak eta gastuak berdinak izaten dira. Gastuen banaketa aztertzen badugu, azpimarratuko genituzkeenak honakoak izango dira. Zifrak borobilduz, 9.300.000 euro pertsonal gastuetan bideratuta dago eta suposatzen du aurrekontuaren %34,5 ;4.232.000 euro dirulaguntza desberdinetan bideratzen duguna, aurrekontuaren %16,12 gutxi gora behera; 854.00 euro Garapen ekonomikoa, merkataritza, Turismo eta Ferietara. 2.175.000 euro inbertsioetara eta 1.134.786 euro zorraren interesak eta amortizaziorako, kasu honetan suposatzen duen aurrekontuaren %4,15. Aipatzekoetan, aurrekontu hauetan izango zen 13.325.000 euro Gizarte Politika, Kultura, Kirola, Hezkuntza Politikara desbideratzen dira, azken finean herritarren ongizatera bideratuta daudenak aurrekontuaren %32a.; 6.206.000 euro bideratuta daude Obra eta zerbitzuetarako. Lehen aipatu bezala, aurreko atalean 2.172.000 euro gutxi gora behera inbertsioetarako suposatzen duena aurrekontuaren %8a. Inbertsioaren barruan hainbat inbertsio urte barruan burutuko dira eta beste batzuk berez, bi urteetan burutuko dira, 2019an hasi obrak eta 2020an amaitu. Horretarako aurrekontu hauetan plurianual batzuk aurreikusi dira. Inbertsio horien artean, inportanteenak aipatzeko izango zen 2019n eta 2020an egingo ditugunak eta plurianualak bezala aurreikusi ditugunak izango dira Laskorain kalea, inbertsio osoa 517.00 eurokoa, aurten 200.000 euro jarriko genituzke. Paper kalean, baita ere, plurianuala izango da, bi urte horietan egiteko eta suposatzen 174.000 euro; Zezen plazako horma eta inguruko urbanizazioa 292.000 euro, hau ere bi urteetan, eta gero Euskal Herriko plazaren arkupeko azpiko lurra 175.000 euroko inbertsioarekin. 2019n egingo zirenak hauek dira, hau da, urte barruan, aurreikusitako diru osoa : Oriá 3ko kaleko irisgarritasuna 21.000euro, San Frantzisko 39-41 arteko urbanizazioa 120000 eurokoa, Abegiko obra 345.000 euroekin. Udateko obra 250.000 euroekin, hemen herritarren arreta zerbitzua zabaldu eta indartu egin nahi da ; Alondegiko estalkia 122.000 euro. Orain arte, aipatutakoak inbertsio materialak dira, baina honetaz aparte, beste azterketa eta proiektuak eta planak garatuko dira etorkizunera begira. Hauen artean, azpimarratzekoak dira, Zumardi Txikiren



proiektua 50.000 euroekin, Zumardi Txikirekin lotuta ere proposamen ezberdinen azterketak autoak zumarditik autoak ateratzeko horretarako 30.000euro jarri izan ditugu. Gorosabel kalearen proiektua, 50.000 euro; Sevendenea etxearen proiektua,15.000euro; Emakumearen etxearen proiektua, 38.000 euro; zabor sentsibilizaziorako 40.000 euro jarri izan ditugu; auto babes plana, irisgarritasun plana 50.000 euroekin. Aurreikusten ditugu ere, 320.000 euro Etxe hutsen alokairua sustatzeko ekintza plurianuala bezala, aurten 120.000 euro eta hurrengo urtean 2020an beste 200.000 euro jarri ditugu eta horretarako konpromisoa hartuta dago. Urtero bezala, baita ere, Landa Auzoetan hobekuntzak emango dira, aurten 125.000 euro bideratuko dira auzotarrekin adostutako hainbat inbertsioak aurrera eramateko. Eta aurten ere, parkeak mantentzeko eta eraberritzeko 100.000 euro jarri da plana aurrera eramateko. Ezin dugu ahaztu ere, orain dela pare bat hilabete, kreditu aldaketa batean 735.000 euro onartu egin genituela zezen plazako hirugarren fasea aurrera eramateko eta kasu honetan hirugarren fasean tendidoa berritzeko. Aipatu behar ere, oposizioaren ekarpenak eta emendakinak azertu ondoren haietatik batzuk kontutan hartuak izan dira eta aurrekontuetan ere txertatu izan dira, adibidez Tolosak hurrengo hogeit-hogeita bost urteetan etxebizitzaren alorrean izango dituen beharrak aztertzeko estudio soziodemografikoa egitea plangintza urbanistikoan lagungarria izango delakoan eta horretarako 25.000 euro eta Wikilaria proiektua, Wikipedian Tolosan eta tolosarren inguruan ezer gutxi dago informazio euskaraz eta hori konpontzeko hasi nahian 12.000euro ikusi izan dira. Orain arte, behar bada, aipatu izan ditugu obrak ,inbertsioak, proiektuak, azterketak, baina departamentu ezberdinetan, baita ere, urtero beti sartu egiten dira ekintza ezberdinak eta berriak bezala, denak aipatu beharrean, bateren bat aipatuko, Partaidetza alorrean adibidez parte-hartze ordenantza osatu nahi da, Gizarte Zerbitzuetan famili esku-hartze eta egungo arreta indartu nahi da eta ezin da ahaztu baita ere, Abegi zentroak eguneko eta gaueko arreta emango duela eta horretaz aparte bere berrikuntza baita ere eman egingo dela. Ingurumen arloan, urmaela aurkezten da Elozegi parkean eta baita ere, mendi ibilbideak balioan jartzea. Leidor zineman gazteen kartelera indartu nahi da, Mugi ekimena indartu egin nahi dugu. Berdintasun alorrean Udal protokoloa eguneratu egingo da eta Garapen Ekonomikoan, Merkataritzaren alorrean tokiko merkataritza barne ekintzaletasunaren bidez sustatu Tolosan dauden lokal hutsak erabiliz eta merkaturatuz, azterketa egingo da horren inguruan. Aurten Garapen ekonomikoaren barruan 2018an ireki izan genuen diru lerro bat, 10.000 eurokoa, enpresei laguntzeko bere lehiakortasunaz. Egia esan ondo joan izan zen, harrera ona izan du enpresen aldetik, aurten aurreikusten da 15.000 euro jartzea. Ezin dugu ahaztu, noski, jai berria den Emari Coworking proiektua bertako ekintzekin indartu nahi dugu eta ekintzak gizarteratzeko jardunaldi bat antolatu nahi dugu. Hauek dira aurten guk planteatzen ditugun aurrekontu proposamena. Gure ustez, ondo landuta daude, jasangarriak dira, errealistak, egingarriak eta etorkizunera begiratzen dutenak, azken finean tolosar guztien ongizatea bilatzen duena. Bukatzeko, aipatu, aurkezten ari garen proposamen honetan, aurkezten diren ekintzak, obrak, proiektu eta azterketa guztiak aurrera emango direla gure diru-sarrerak erabiliz, zorpetu gabe, azkeneko lau urte hauetan egin dugun bezala, Udalaren egoera finantzarioa ona da, legealdi honetan obra eta inbertsio guztiak diru sarrerak eta erakinak erabiliz gauzatu izan dira eta lortu dugu zorra %34a jaitea. 2019N, urte bukaera udalaren zorra aurreikusten da izatea 5.124.000 eurokoa, legeak ezartzen dituen mugetatik nahiko gertu. Hau izango litzateke gure proposamena.”



... Lore Agirre Zipitria (EHBildu): *“Legealdian honetan aurrekontuaren eztabaida hasi dugun guztietan, nire interbentzioa hasten zen esaten gure ustez urteko plangintza eta proiektua jaso behar zituztela, urte osoko egitasmoak jaso behar zituztela. 2016, 2017 eta 2018ko aurrekontuak onartu zituenen Udal pleno honek aipatzen genuen tramiteko aurrekontuak zirela, edukirik gabekoak, proiekturik gabekoak eta horrela ikusten zen urtean zehar, beharren edo eskaeren arabera osatzen egiten zenituztelako. Aurtengoan, berriz, 2019ko aurrekontuak guztiz ezberdinak direla konturatu gara. Azken batean, legealdiko azken aurreko aurrekontu hauek jaso dituzte, guk behin eta berriz aipatu izan dituzten zenbait proiektu eta egitasmo. Eta zentzu horretan beste egiteko modu batean hasi zaretela dirudi legealdiko azken urte honetan. Jasotzen dira zenbait proiektu eta egitasmo baina zenbait berandu datozela esan behar dizuegu. Iaz eta aurreko eztabaidetan EHBilduk egindako proposamen ugari jasotzen direlako 2019ko aurrekontu hauetan, bere momentuan EHBilduk ekarpenak egin zituen momentuan onartuak izan ez irenak eta oraingo honetan, zuenak balira bezala barneratu dituzue aurrekontu hauetan. Eta zalantzarik gabe proposamen horien horrelako erabilera ez zaigu batere elegantea iruditzen. Aipatu nahiko zenituzke, beste zenbait adibide iaz proposatu genizuen etxebizitza plan bat jartzea, alde batetik Tolosako etxebizitza hutsen egoeraren inguruko azterketa egin eta bestetik 2014n, gazteen emantzipazioarekin lotutako dirulaguntza bat martxa jarri zen eta berriro alokairu soziala sustatzeko programa martxan jartzea. Ez zeniguten onartu aurrekontuetarako proposamen hori eta orain planteatzen duzue 2019ko aurrekontuetan Etxebizitza Plana barneratzea. Proposatu genizuen ere eraikin publikoko lotutako besteak beste, zenbait proposamen bazeuden, Sevendenean musika ensaiatzeko lokal bezala erabiltzea, Turismo bulegoa kokapenez aldatzeko. Orduan aipatu zenuen azterketa egin behar zela, proposamena ez zen barneratu eta, orain, zuek aurrekontuetan gure proposamen hori sartu duzue zuena izango balitz bezala. Garapen Ekonomikoaren lotuta ere, besteak beste aipatzen duzuen alkateak egindako prentsa agerraldian, Coworking, Berriz programa, horiek ere badatozela. Ba zalantzarik gabe aurreko legealdian sukaldatu ziren programak dira, ondo funtzionatu dute, eta, nola ez, jarraitu duzue kudeatzen, baina zentzu horretan ez da ezer berria. Esandakoa, berandu zabilzate zenbait proposamenekin eta gainera zuenganatu egin dituzue. Hala eta guztiz ere, eta legealdi guzti honen zehar eraikitzaileak izaten saiatu gara eta horrela jarraitu nahi dugu bukaera arte. Oposizio aldetik iruditzen zaigulako Tolosa hobe baten alde lana egin dezakegulako, eta urtero bezala, udal gobernuak aurkeztu duzuen aurrekontuei zenbait proposamen edo ekarpen helarazi dizkizuegu aurrekontuak osatzeko eta orain Iñakik azalduko dituenak banan-bana.”*

... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez (EHBildu): *“Hamabost proposamen izan ziren guztira, lehen entzun dugu Gobernuak bi onartu egin dizkigula. Konpromiso alorrean gure lehenengo proposamenak zerikusia zeukan 65 urtetik gorako ongi izatearekin. Hain zuen ere, hainbat baldintza betetzen dituzten pentsiodun horien egoera azterketa egitea eta proposatzen genuen eta pentsio osagarriaren moduko laguntza bat ematea ahal dela familia unitateko 1.080 euroko diru sarrera bermatze aldera. Bigarren proposamenak badauka aurrekaririk, joan den urtean mahai gainean jarri genuen eta zer ikusia dauka San Esteban auzoaren egoerarekin. Iruditzen zaigu badela garaia pausoak emateko, pauso batzuk eman dira baina ez gara iristen behin betiko pausoa ematera. Badirudi datorren urtean hasieran egingo dela hori,*



horrek ekarriko du plan partziala aldatzea seguruenik, egokitzeko dago plan orokorra egoera berrira. Gure proposamena zen behin plan partziala onartuta eta gero, nolabait Udalak konpromisoa hartzea bertan lurzorua erosteko. Eta zergatik lurzorua erostea? Udalak badauka lurzoru proportzio handi xamarra San Estebanen, %40tik gorakoa oker ez banago eta iruditzen zaigu edozein gauza egiten delarik gerora San Estebanen Udalak, Administrazio publikoak, lur zoruaren jabe izateak erraztu egiten dituela eta erosketa honekin handitu egiten zela nolabait administrazioak hor eraikitzeke duen gaitasuna. Bestetik onartu egin duzuen, hurrengo hogeitahogeita bost urteetan azterketa sozio demografikoa Tolosari buruzkoa. Laugarrenak joan den urtetik zetorren, hain zuzen ere Olarraingo bidegurutzeko egoera hobetzeko errotanda egiteko aukera. Joan den urtean komentatu zen hiru urte, Diputazioan egon zinetela, arazo batzuk badaudela tartean jabegoarekin eta beste batzuk. Baina asko ez dugu ezer asko aurreratu eta gaur jakin dugu prentsari buruz Diputazioak beste errotanda egin behar dela Amarotzen. Ez dugu esaten gaizki dagoenik, erretentzioak eta horrelakoak sortzen omen dira, nik asko ibiltzen naizen hortik eta ez dit harrapatu, gertatuko dira, baina Diputazioak horretarako asko eta prest agertu dela baina Olarrainen orain dela urtebete bezala jarraitzen dugu. Egoera askozaz larriago da Amarotzeko bidegurutze horretan gertatu litekeen egoera baino. Hor baliteke erretentzioren bat, agian, txapa istripuren baina Olarrainen pertsonen bizia dago, izan ere oinez ibiltzen da espaloirik ez dagoen tokian, Jakingo du Diputazioak zer lehentasunak dauzkan eta zer sustatu nahi duen Tolosan eta Gipuzkoan. Pentsatzen dugu Tolosako Udalak presio handiagoa egin beharko zukeela Olarraingo egoera hori konpontzeko. Bosgarrena zen Gorriti plaza edo RC2 gunean egin behar den erainketa urbanistikoa gauzatzen asteko lehenengo diru partida jartzea. Beste biak zerikusia zuten aldaketa klimatikoaren aurkako borrokan edo aldaketa energetikoaren alor horretan. Orain dela 15 egun, Katowice hirian egin da klima aldaketari buruzko bilera, hor ikusia zer egoeretan gauden. Garbi dago ez dagokiola bakarrik Estatuei edo administrazio handiei aldaketa klimatikoaren kontrako borrokan horretan jardutea, eraldaketa energetikoa bultzatzea. Gu, guztioi arreta berezia badakigula eta baita erakundeei ere. Bi neurriak proposatu genizuen, lehenengoa zen, Udal eraikinetan energia berriztagarriak ezartzeko azterketa burutzea, non zen posible eta nola den posible eta bestea zen legea aldatu denez, etxebizitza komunitateek posiblea dutenez, energia sorkuntza izatea nolabait dirulaguntza lerro bat irekitzea zentzu horretan. Egia da honetarako EVEk ematen dituela dirulaguntzak, baina hauek %25eko bitartekoak dira, dirulaguntza horiek beste dirulaguntza publiko batzuekin %65a bitartean konplementatu daitezke kategori honetan. Beraz ez dugu ikusten zergatik ez ditugun konplementatu behar beste dirulaguntza lerro batzuetan konplementatzen direnean, esaterako euskarako tokiko komunikabideetan. Iruditzen zaigu, gainera, hau lehen urrats bat izan behar duela, etorkizunera begira akaso udaletxe honek aztertu beharko lukeela bere ordenantza bat sortzea aldaketa klimatikoari aurre egiteko, Tolosara ahalik eta zauri azterna txikienak isuri dezan. Bada beste alor batzuk udalaren aldetik eragin daitezkeenak, hasi ibilgailuetatik, jarraitu terrazako berogailuak eta beste hainbat eta hainbat. Zortzigarrena zer ikusia zuen Usabal kirol gunearekin, hor badaude batzuk mahai gainean gauzatu nahi direnak, baina horrek isla bat behar du presupuestoan, gutxienez proiektu mailan, lerroetan zenbakietan jartzen direnak eta eskatzen genuen partida bat irekitzea horretarako. Azkenik, bederatzigarrena arazo bat detektatu dugu, itxura batean adin txikiko hainbat nerabearen hasieran dauden adin txikiko horiek kirolari uzten diote, adin horretan klubak diru ekarpenak eskatzen dituztelako eta hainbat familiak ezin



diotelako aurre egin diru ekarpen horri. Planteatzen genuen azterketa egitea lokalizatzeko fenomemo horren benetako tamaina, horrek nun eta nola eragiten duen eta ea Udalak lagundu dezakeen nerabe horiek kirol egin dezaten. Inbertsio alorrean udal eraikinen proiektuarekin hastea eskatzen genuen, gauza batzuk hasi ditu udalak bere kabuz, Sevendenea, Udate edo Emakumeen Etxea. Hilabete batzuk badaramatzagu bozeramaileen bileretan hitz egitez adostasun batera jarri beharko genukeela plan hori martxan. Espero dezagun ahalik eta azkarren adostasunera iristea baina garbi dago edozein gauza 2020 urtean martxan jarri nahi izanez gero zerbait egin behar da 2019an, behintzat proiektu mailan. Guk argi ikusten dugu, eta hori gure iritsia da eta zuekin hemen partekatzen duguna da, ikusita egindako azterketa horretan bi eraikinek dutela lehentasuna, bata Aranburu jauregia eta Liburutegia eta bestea Kultur etxea, gure proposamena hortik hastea liburutegia Kultur etxean ezarrita. Baina hori eztabaidako puntua da eta denon iritzia jaso beharko dugu. Inbertsio alorrean beste bat zen Paper Eskola indartzeko elkarte izeneko bat dago, ez dakit jendeak asko ezagutuko duen baina da duela hamabost urte erakunde publikoek sortu zuten beste hainbat eragileekin, Paper Cluster, beste hainbat eragileekin Tolosaldea Garatzenekin batera sortu zuen elkarte bat garai hartan maldatik bera zihoan Paper Eskolari bultzada bat emateko asmoarekin. Elkarrekin gauza askoren artean, paperaren entsaio fisikoak egiteko laborategi bat dauka. Dagoena Don Boscoko eraikin horretan eta momentu honetan hori da Elkarte horren jarduera inportanteena. Hori inbertsio batzuk egin behar dira, laborategi horiek eskaintzen dituen zerbitzuak momentu honetan gainera kalifikatuena, sailkapenak dutenak eta zertifikatuta daudenak hobetzeko eta ziurtatzeko emango direla eta gure proposamena zen joan den urtean Diputazioak diruz lagundu zuen bezala Enac lortzea elkarrekin eta nola momentu honetan Hezkuntza Sailak beste sozietako batek nolabait batek instalazio horiek musu-truk utzita eta Don Boscoko irakasleen orduak esleituta funtzionatzen duen eraikin hori udalak ere konpromiso bat hartzea egin behar diren makineria inbertsio horietan ekarpen txiki bat egitea proposatzen genuen. Bestelakoetan, Udalbitzari ekarpena, urterokoa proposatzen genuen egitea, 15.000 eurokoa. Wikilaria proiektua onartu egin duzuen eta gero proposatzen genuen Kultur sortzaileentzako beka bat sortzea Tolosako Udalak. Bazegoen beste puntu bat, azkena, eta honek zer ikusia zeukan irizpide orokorrekin, guk azkenengo hiru urteetan beti esan dugu nolabait aurrekontuek islatu behar dutela errealitatea. Badago puntu aurrekontuetan islatzen ez duena, orain dela hiru urte eta erdi jatorria duena, hain zuzen, politikoen saria, hau da goi karguen hautatuen sariak ez ditu islatzen momentu honetan EAJ eta EHBilduren artean lortu dugun akordio bat hurrengo legegintzaldirako ordainsariak direla eta. Bueno, 2015eko lehenengo horietako pleno batean alkateak proposatu zuen gai hori komeni zela aztertzea patxadaz eta horretarako, agian, Gardentasun batzordera eman behar zela eta ea 2016rako adostu genezakeela. Ez zen posible izan, besteak beste gure barruan gogoeta prozesu bat medio zegoelako Baina 2017an heldu genion azterketa horri, EAEko Udal legea indarrean zegoela, horri buruz ere udaleak izaten zituela hainbat gauza liberazioen inguruan, oposizioko lehen indarrak liberazioa behar zuela izan eta hasi ginen horren buruz hizketan eta baita politikoen izan behar zuten dirusariaren inguruan. Eta zergatik? Iruditzen zaigulako ez dugula datorren ekainean lanean hemen hasiko direnen gain jarri behar beren soldata ezartzeko ardura. Eta ados baldin bageunden eta sistema bat ezartzerik baldin bagenuen denboran iraungo zuena onuragarria izango litzatekeela guztiontzako. Izan genituen hainbat elkarrizketa, lehendabizi bi aldeko bileretan eta bukatu genuen bozeramaileen bileran adosten, hau da, iritsi ginen Eudelen sistema



aplikatuko genuela adostea. Guri iruditzen zaigu gardentasunez herritarrei zor diegun gardentasun medio horrek isla izan behar duela aurrekontuetan, erabakia hartuta daukagulako. Gure artean hartutako erabaki hori udaletxe honetan eragin izateko formalki hartu behar da erabakia eta aurrekontuan islatzea da modu formalki islatzeko. Hori proposatu genizuen bereziki iruditzen zitzaigulako herritarrek jakin behar dutela udal honetako indar nagusiek hartu ditugun erabakiak gero ondorioak izango dituztenak ekainetik aurrera.“

... Begoña Tolosa Mendia (Ogasun zinegotzia): *“Alde batetik, pozten naiz Lore aurtengo aurrekontuak gustukoak izatea, izan ere, aurrekoetan ez dira horrela izan. Zaila da ala ere gustukoak ez izatea izan ere aurtengo aurrekontuak oso onak dira. Esaten duzunean berandu sartu ditugula gauza batzuk edo bereganatu egin ditugula zuen ekarpen batzuk, gauza batzuk egiten dira une egokian denean, esaten duzunean Sevendenekeo proiektu eta abar, hori beti komentatu izan zaizue itxoiten ari ginela eraikuntzen azterketak zer esaten zuen eta etxe hutsen proiektuan ere uste dut proiektua hasi zela 2015 urtean hasi eta bukatu 2017an eta ordura arte ez genekien ezta ere horren ondorioak zeintzuk izan zitezkeen edo nola joango zen. Pozten naiz gutxienez, aurtengo aurrekontuak gustukoak izatea. Bestalde, Iñaki komentatukoarekin, hau Ogasun batzordean erantzuna esan baguen hemen errepikatu dezakegu. San Estebanen kasuan azterketa bat eskatuta dago, hemendik gutxira egingo da eta uste genuen azterketa horren ondorioak ikusi arte itzarotea, gero izango baita momentua erabakiak hartzeko azterketaren ondorioak aztertu ondoren. Olarraingo sarrera bai dela ekarpen bat azken urteotan komentu izan duguna. Hemen gure erantzuna zen Gipuzkoa Foru Aldundian gai hau mahai gainean jartzea da, horren jarraipena egiten ari gara eta horrela jarraituko dugu. Energia berriztagarrien gaiarekin bi eskaera zeuden. Alde batetik plana egitea eta bestea zen eraikuntza komunitarioetan diru lerro berri bat sortzea. Hor ere komentatu genuen, plana aurretik eginda zegoen eta aurretik ikusita zeuden 100 KW instalakuntzak, tramite aldetik azkoz errazagoak zirela eta hasi behar zela baita ikusten genuen plakak jartzeko teilatuak ere konponduta egon behar zirela. Orain, momentu honetan ikusita Alde Zaharreko etxe guztiak babestuta daudela eta ikusita udal eraikinen teilatuak nola dauden, Ferialekukoa 2016an konpondua izan zen. Gure ideia da urtean zehar plaka batzuk jartzea 100.000 euroko euroko inbertsio batekin eta begiratu ea Ferialekukoa nola doan, etekinak nolakoak diren eta horren arabera zein teilatu joan konpontzen eta zer motako energi berriztagarriak jarri. Etxe blokeen kasuan komentatu genuen agian EVEren aldetik dirulaguntza zegoela jada sortuta, nolabait esaten zena zen beste diru lerro bat osagarri gisa jartzea. Guk ere kasu honetan diru lerro berriak sortzen ditugunean egin behar duguna da hasteko azterketa ekonomiko bat, zer den eskaini dezakeguna, zer den etheen blokeetatik zer daukan eskatzea eta guk ere, noraino daukagun laguntzea. Adin txikikoen arazo ekonomikoen inguruan kirola egiteko Kirol departamentuko buru eta teknikoekin hitz egin beharko dugu zer gabeziak ikusten dituzten eta zer irtenbide bilatu. Udal eraikinean berrikuntza hastearen inguruan adostu egin beharko dugu Udal eraikinen erabilera eta lehentasunak adostu. Proposatzen duzue Liburutegia Kultur Etxera ematea, mahai gainean jarriko dugu, ikusi teknikoan iritzia, egokia den. Paper eskolako laborategian inbertsioa egiteko eskaeraren inguruan geratu ginen egongo ginela Paper Eskolako eta Don Boscoekin, eta behar bada Foru Aldundiarekin, aztertu zer ardatz dauden eta ikusi nola aurre egin. Udalbitzarena, berriz, betiko erantzuna, Eudelen gaude eta asetzen*



TOLOSAKO
UDALA

dir betebeharrak. Tolosako Kultur sortzaileentzako beka, kultura aldetik ez genuen ikusi inongo eskaerarekin eta gelditu ginen teknikariekin hitz egiteko eta beraiek ikusten zuten beharra eta baita eragileekin hitz egitea ea aurreikusten bazuten horrelako bekak sortzea. Ni zentratuko naiz gure zuzeneko eskumeneko diren aurrekontu hauetaz.

... Lore Agirre Zipitria (EHBildu): Begoña, iazko eztabaida bukatu genuen esanez, azken batean bi alderdiok eredu, kudeatzeko eredu ezberdinak genituela eta horrela aitortu zenuen. Guk gure aurrekontuetan urte osoko asmoak eta plangintza oso sartu egiten genituela eta da urtero eskatzen ari ginena. Zuek, aldiz, horrela aitortuta egiten zenituztela momentuan zeneuzkaten diru-sarrerekin eta gero, kreditu aldaketarekin edo dagokion tramiteekin osatzen joaten zinetela. Badirudi egiteko, zuei gustatu zaizuela gure egiteko era, eta ez alderantziz. Hala ere, puntualizatu bat egin nahiko nuke eta berriz errepikatu. Zenbait ekarpen gure ekarpenak izanda nahiz eta ez momentua izan ez dela batere elegantea orain medailatxoak zuek jartzea. Azkenean, betikoan jarraitzen dugu, egiteko moduan dago desberdintasuna eta hori da, gaurkoan ere, agerian gelditzen dena. Zenbait kontu aipatu dituzu. San Esteban aipatu duzu, azterketa berri bat egin behar duzutela aipatu duzu. Pixka bat iñakik aipatu duenaren ildotik, gure ustez, San Estebanen ezin du gehiago itxoin. Aurreko legealdian parte-hartze prozesu bat burutu zen auzotarrekin, eragileekin. Adostasunetara iritsi ginen, zuen adostasuna falta zen, legealdi aldaketa etorri zen eta lau urte galdu ditugu. Izan ere, berriro ere, gaude aurreko legealdiaren bukaeran baino okerrago nik esango nuke eta, gainera, denbora galdua. Guk esaten genuena, hala ere, da goazen dagozkion azterketak burutzea, baina goazen aurreratzea, lurzoruak erostea, goazen gure egitea eta publikotasun ikuspuntu horretatik auzoa biziberritzen joatea gero ere etorkizunean ere askoz errezagoa egingo dugu. Berriro diot San Esteban ezin da urteetan uzten ari garen bezala, uzten jarraitu. Olarrainen aipatu duzu, biribilgunearena. Gure ustez oinezkoek garrantzia handia dute, ezinbesteko garrantzia dute. Behin eta berriz errepikatzen baduzue Foru Aldundian, Tolosak hor behar duela. Egia da eragiteko ahalmena zalantzan jartzen dut, hainbeste bileretan aipatu baduzue urtean zehar. Hala ere, proposamenean ezinbestekoa ikusten dugu herri sarrera hori txukuntzea eta oinezkoentzat, herritarrentzat, segurtasun neurriak behar bezalakoak hartzea eta hori da proposamenean ere jasotzen dena. Hori bai dela gure eskumenekoa. Eskumenean artean, nik ez dakit orain erantzun behar dudan edo beste buelta bat izango dugun. Badaude zenbait proposamen, egia da zuzenean ez direla Tolosako Udaleko eskumenekoa, pentsioarenak esaterako. Proposamenean artean guk gai hau sartzearen arrazoia izan da gure erantzukizunak, gure ardura delako tolosarrek bizi baldintza duinak izatea eta gaur gaurkoz eskuduntza daukaten erakundeak gai ez badira behar horiek asetzeko, guk tolosarren ongizatea bermatzea helburu badugunez, guri dagokio honi aurre egitea eta horregatik proposatzen de dirulaguntza lerro hau. Azken batean, inongo tolosarrek ez dezala pentsatu bi aldiz berogailua piztu behar duen edo ez. Horregatik da planteatzen den dirulaguntza proposamen berri hau, 65 urtetik gorako tolosarrentzat, nolabait ere, hor aipatzen diren baldintzekin, diru sarrerak bermatu ahal izateko. Ez dakit zerbait gehiago argitu nahi duzuen egindako ekarpenetatik.

... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez (EHBildu): "Aipatu duzun energia berriztagarritasun plan hori, plana egina dagoena, bai guri gustatuko zitzaigula ezagutzea. Guk



daukagun erreferentzi bakarra da Ferialekuan egingo nahi dugu interbentzio hori.”

... Alkatea : *“Hartuko dut txanda. Nahi nuke era egoki batean pentsioen inguruan proposatutako zuen ekarpen horri erantzutea baina aurretik, iruditu zaidalako Lore egin duzuela oso irakurketa sesgatua. Ez dituzula gauzak diren bezala esan, gainera. Kreditu modifikazioak dira aurrekontuaren erremintak eta guk erreminta bat legealdi hasiera erabili dugu eta jarraituko dugu erabiltzen. Nik esango nizuke lan egiteko era legealdi honetan aldatu dugula aurreko legealditik, noski baietz, legealdiko lehenengo urtetik hona. Nik uste dut, eta askotan errepikatu dut gainera publikoko, nolabait Tolosatzen martxan jarri dugu proiektu berriekin. Aipatzea gure da eta zuena da eta, nire ustez, proiektuak herriarenak direla Lideratzen dituela udaleko gobernu taldeak eta oposizioak batera, bakoitzak bere papera betez. Izan ere, adibidez, legealdiaren hasieran zuei kudeatzen bukatzen zitzaizuen Gernikako Arbolaren urbanizazioa nork egin zuen? Eta horrela hainbat eta hainbat, Coworkinga aipatzea bilera batean edo pleno batean, hori ez da ezer kudeatzea, adibide batean. Iruditzen zait izugarria egin duzun planteamendua, ez nator bat, eta ez dut uste errealtateari erantzuten dionik. Orain, nahi nion pentsioari gaiari erreparatu. Bai izan da, zuek egindako proposamen horietan baldintza ezinbesteko bat pentsioen ekarpena hori egin duzuen proposamen hori, eta, baita ere, ordainsarien inguruan lñakik egin duen ekarpen horri nolabaiteko baldintza aurrekontuei baietza emateko, ezta?. Zehazki eta pentsioen gaien inguruan, uste dut eta horrela esan behar dut, egin duzuen proposamena ez dela serioa, ez da proposamen serio bat. Gehienbat oso gutxi landutakoa delako, ez dagoelako eginda benetako azterketa bat zer nolako eragina izango lukeen horrelako ekimen bati aurre egitea. Benetan usten dut ez diola pentsioen aferari aurre egiteko proposamen bat, ez duzuela egin. Benetan egin duzuen da gehiago, eta erantzuten diola gehiago, hauteskundeak gertu egotearen egoera bati. Adibide bat garbia ondasun hirigarrien gehienezko izan behar duen kopuruak erabat errealetatik kanpo daudela. Pentsioen gaia udalaren eskuduntza eta eskuduntza autonomikoek gaintitu egiten ditu. Hori badakizue, Estatuko eskumena delako. Kotizaziopeko pentsioa gizarte segurantzari egindako kontratazioak dira, langile eta enpresen ekarpenen araberakoak eta langileen dirusarreraren gordinen baitan daude. Besteen konturako langileen edo soldatapeko kasuan. Autonomoen kasuan, norberaren ekarpenaren baitan. Gurera etorri Euskal kasuan Eusko Jaurlaritzak aurrekontuak negoziatu dituenean EHBildurekin ez da lortu negoziazio hori aurrera eramatea. Saiakera bat egin da orduan pentsioak eta diru-sarrerak bermatzeko errenta hori kontzertua parekatzeko baina inondik inora ez dira gauza berdinak. Eta ez dira parekatu behar. Jaurlaritzak pentsioen gaia horrela pentsatuz gero, soilik osatu dezake diru-sarrera bermatzeko errentaren bitartez. Eta horrek ez lieke pentsionista guztiei eragingo. Gogora ekarri nahi dut, baita ere Eusko Alderdi Jeltzaleak Alderdi Popularraren gobernuarekin negoziatu zuela eta, horren ondorioz, lortu zela pentsioen igoera. Euskal pentsioei ez ezik, pentsionista espainiar guztiei eragiten diena. Negoziazio horretan 2018rako %1,6ko igoera lortzen du, ez Espainiar Gobernuak aurreikusten zuen % 0,25a. 2019rako KPIaren erreferentzia berreskuratzea aipatzen da eta 2023ra arte alargun pentsioan oinarria arautzailea igotzea, aurten %56a eta 2019an, % 60a. Horren haritik Euskal Kontuen Aurrekontu negoziatzeko eskaintzan Eusko Jaurlaritzak eskaini zuen gutxieneko kopuru bat, pentsioa eta diru sarrerak bermatzeko errenta horiek osatuz.18/2008ko legeak Gizarte Zerbitzuaren legeak, abenduaren 23koak, arautzen du gizarteratzeko eta diru sarrerak bermatzeko*



TOLOSAKO
UDALA

euskal sistema eta honela dio bere 3. artikuluan, d puntuan: "Berdintasuna eta ekitatea zerbitzu eta prestazioak eskuratu eta aplikatzeko. Prestazio ekonomikoak eta gizarteratze- nahiz laneratze-tresnak eskuratzeko aukera bermatu behar dute euskal administrazio publikoek. Lan horretan, ekitatez jokatu dute, eta aukera hori Erkidegoko lurralde osoan homogeneoa izango dela ziurtatu dute, hau da, laguntza jasoko duena bizi den udalerria edo lurralde historikoa ezin izango dela baldintzagarria izan zerbitzuak edo prestazioak emateko edo aplikatzeko, eta ez udalek ez lurralde historikoek ez dute ahalmenik izango lege honetan xedatzen diren prestazioen gehigarri ekonomikoak arautu eta aplikatzeko." EHBilduk Tolosan planteatzen duen proposamena martxan jarriko balitz ekitate eta berdintasun irizpidea hautsi egingo litzateke. Izan ere, adibidez, Ibarako edo Alegiako bizilagunak, baita ere, EHBilduko alkatea Gobernuan dutenak, ez dituzte laguntza horiek izango. Zer izan behar ditugu Euskadin eta Tolosaldean baldintza ezberdinak dituzten pertsonak, lehen mailakoa eta bigarren mailakoak erroldatuta dauden udalerriaren arabera?. Diru sarrerak bermatzeko euskal sistema Eusko Jaurlaritzaren eta Eusko Legebiltzarraren gai bat da. Pentsioen politika Estatuarena den bezalaxe. Ez dezagun gure gain hartu gure eskuduntzen barruan ez dagoen gairik. Izan ere, beste administrazio publiko batzuen diren gaiak kudeatzen baditugu, berez geureak direnak egin gabe utziko ditugu. Gure betebeharra da gainerakoak administrazioei eskatzea bete ditzatela beren egitekoak. Horretarako, alde batetik, mozio bat onartu zuen aurtengo apirilaren 24ko Osoko Bilkuran eta bestetik, Euskal Herria Bilduri eskatzen diogu Eusko Legebiltzarrean babestu dezala diru-sarrerak bermatzeko errenta arautzen duen legearen erreforma. Horrela, euskaldun guztiek, udalerrri edo lurralde edozein dela ere, hobekuntzak izan ditzaten diru-sarrerak bermatzeko euskal sisteman. Eusko Jaurlaritzak Eusko Legebiltzarrera lege proposamen eramateko konpromisoa hartu du, zertarako eta, diru-sarrerak bermatzeko errentaren legea aldatu ahal izateko eta hala aukera egon dadin Bilduk aurrekontu negoziazioan onartu ez dituen baldintzak gehitzeko. Izan ere, ez gehitzeak eragotzi egiten du famili kaltetuenen diru-sarrerak duintzea. Espero dezagun negoziazioan Bildu horrekin konsekuentea izatea. Lortzen ez dugun bitartean Gizarte Segurantzaren eskuduntza osoa. Azkeneko aldiz, Eusko Legebiltzarreko plenoa 2018ko abenduaren 21ean eskatu zuen Eusko Alderdi Jeltzalea, EHBildu, Elkarrekin-Podemos eta PSEren aldeko botoak jaso zituen, hau da, 66 boto, 75 legebiltzarkideetatik Ganberako %88a eta honela dio hitzez-hitz: "Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio lehenetsuneko izaeraz sar dezala Espainiako Gobernuarekin egin beharreko lan plangintzan eta egutegian Gizarte segurantzako alorreko eskumena Euskal Autonomi Erkidegora transferitzea, Gernika Autonomia Estatutua onesten duen 3/1979 Lege Organikoaren 18.2 artikuluan eta 5. xedapen iragankorrean xedatutakoarekin bat eta harrekin lotuta diru bilketa eta prestazioen banaketa." Ezinezkoak eskatzea eskuduntzarik ez duten erakundeetan Udaletan eta Eusko Jaurlaritzan aho berokeria edo eguzkiari egindako brindis bat baino ez da. Lanean jarraituko dugu eskuduntzaren hori bere osotasunean eskualdatu bitartean. Euskaldunen bizi baldintzak duintzen euskaldun guztienak eta batik bat kaltetuenenak. Hori pentsioei dagokionez. Eta ordainsariei dagokionez, egia da nire pertsonalki kezka handia sortzen didala azken urte hauetan herritarrek politikarekiko duten konfiantza falta hori, eta nik uste dut gaia hauek direla konfiantza hori galdarazten dutenak. Horregatik, legealdi hasieran ez nuen nahi afera hori osoko bilkuran honetan sortzea eta planteatu nuen lasaitasunez, adostasunez, ekartzea gai hori osoko bilkurara. Ez zen posible izan legealdi hasiera horretan. Politikarien soldatak eta konfiantzako goi karguen soldatak onartzen dira legealdi hasieran eta EUDELe planteatzen dituen, ezartzen ditu irizpideak zein eta irizpideekin gu beti ados agertu gara publikoan. Baita ere pribatuan. Gipuzkoako Foru Aldundiak arau baten bitartez berresten ditu



irizpide horiek. Erabaki horiek legealdi hasieran onartzen dira eta onartu ziren. Erabaki genuen legealdia iraun bitartean onartutakoa mantenduko genuela esan genuen. Zeuden tokitik ez genituela mugituko. Hala ere, nolabaiteko negoziazio edo elkarrizketa lasaiago bat izateko legealdi honetan zehar eta posible balitz datorren legealdian EUDELen irizpideetara etortzea, baino adostasunez. Denon adostasunez. Beraz, mantendu egin genituen nahiz eta EUDELe markatutakoarengandik behera egon. Mantendu eta ere, soldatak igoko genituela esan zenuten. Mantendu eta ere, soldatak igo genituela esan zenuten eta ez zen egia esan eta publikoki adierazi behar izan genuen hori ez zela egia. Guk hitza bete dugu, legealdi hasieran esandakoa mantenduko dugu legealdi bukaerara arte. Nik uste dut, gai hau Tolosan dagoen egoera ezohikoa da beste udalerrri batzuetan ere eta ustez normaltasunera ekarri behar dela, uste dut hori erabaki behar dela legealdiko lehen osoko bilkuran. Legealdi berrian, gobernu talde berriarekin eta herritarrek aukeratzen duten alkate berriarekin. Badaukat susmo bat eta horrek haserre xamar jartzen nau, badaukat susmo bat, bilatzen duzuen dela Eusko Alderdi Jeltzaleak igotzea soldatak eta, kasua balitz, EHBilduko ordezkariak Gobernura iritsiko balira nolabaiteko horrelako fama ez edukitzea gainean, eta horrelako zerbait ere adierazi du Iñakik. Iruditzen zait sekulako heldutasun politiko falta. Akordio bat baldin badago eta akordiora iristeko gaitasuna baldin badauzkagu akordio egin behar dira bete. Akordioak egiten dira bete eta horretarako ez da inolako bermerik behar.”

... Lore Agirre Zipitria (EHBildu): *“Pentsioaren gaiarekin irakurri duzu, legea irakurri diguzu, eskuduntzetan nahastu gara. Abiapuntu bezala esan nahiko nuke, izan ere, ez ditut errepikatuko erabili dituzun hitzak. Herriko alkate batek hemen osoko bilkuran horrelako hitzak erabiltzea niri, benetan, atentzioa deitzen dit. Abiapuntua aipatu nahiko nuke, hasiera hasieratik, bestelako bileretan izan garenean, gure asmoa elkarrekin aurrekontu hauek aurrera atera zela, proposamenak zintzotasunez egiten genituela, iruditzen zitzaizkigun proposamen egokiak zirela beste urteetan izan diren bezalakoak eta zuei ere aurtengoan gure iazko proposamenak horrela iruditu zitzaizuelako. Baina berriro diot zintzotasunez, inolako bigarren intentziorik gabe. Ez ditzazun jarri nire ahotan nik esan ez dizuten esan hitzak eta ez itzazu gutxietsi ez, nik esandakoak ezta, gure proposamenak ere. Pentsioetara bueltatuz, pentsioa deituko diogu, baina aipatu dudan bezala, guk planteatzen ari garen dena, eta tituluetan horrela jartzen den bezala, “65 urtetik gorako herritarrentzat dirulaguntza bat sortzea””. Tolosako Udalak momentu honetan badauka diru laguntza poltsa bat, nahiz eskuduntza ez izan, AESko dirulaguntzak iristen ez direnean erabiltzen dena. Badaude, bere gain hartzen ditu beste erakundeek diren eskuduntzak. Bere gain urteetan hartu duen bezala Euskaltegiari dagokion zuloa edo eta Musika Eskolari edo eta Hirugarren Adineko Zahar Egoitzei. Beraz, eskuduntzen eztabaidan ez gara hasiko azken batean guk planteatzen duguna da herriak dauka aldarria eta guk aldarri hori eusten diogu eta plazaratzen dugu proposamen bat, besterik gabe. Proposamen ez serioa aipatu duzuna eta aho berokeria, ez neska, ez, ez. Proposamen oso serioa da, planteamendu beste herri baten proposatu dena, egingarria dena beraz, Tolosako Udalarentzat gure ustez, ez da karga handia, juridikoki berme guztiak ditu, ze beste herrietan ari da aplikatzen da eta proposamenean proposatzen duguna, egoera ikusita goazen aztertzea eta behar hori badago, goazen aplikatzea, hori da gure proposamenean jartzen duguna. Egia da eskuduntza daukaten erakundeek ez dio behar bezala erantzuten. Agian,*



eskualde buru bezala Tolosa izan behar du horrelako ekimen bat martxan jartzen duena, ze gaitasun gehiago daukagu gero beste herrietara zabaltzeko. Ez da inondik inora hauteskondeetara begira, ez dakit zenbat gauza esan dituzun. Aurrekontuetara begira proposamena bat da, egingarria, udalak egin dezakeena eta benetan gure ustez proposamena honi ezezkoa ematea da tolosarren baldintzen duinetan daukan hori ahalegin hori ez egitea. Egingarria den horretan, berriro diot, goazen aztertzea.”

... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez (EHBildu): *“Konfiantza galtze aipatu duzu, Olatz. Susmoak daukazula zuen kontrako maniobra bezalako bat ote dagoen. Hitza betetzeko dela eta horrelakoak. Ordainsarien proposamen hau mahai gainean jartzearen arrazoia da bakarra da gardentasuna, herritarrek jakin dezaten udaletxe honetan nagusiak diren bi alderdi hauek zer erabaki duten eta eskubidea daukate hori jakiteko. Eta hori zen bidea, ez dago besterik honen atzean. Gainera, zuk momentu batean, 2015eko 15eko pleno hartan esan zenuen goazen Gardentasun batzordea martxan jartzea, hor eztabaidatuko dugu gaia, eta ea 2016an posible den erabakitakoa martxan jartzean. Ez zen posible izan, besteak beste, guk gogoeta bat egin behar izan genuelako, eta gu genituen gauza batzuk aldatu. Nik uste prozesu bat egon dela, prozesu horrek amaiera izan zuen joan den maiatzean. Baina erabakia hartuta dagoenean, formalki hartu behar da, eta formali hartzeko modua da presupuestoetara ematea. Beste gauzak batzuk presupuestoetara ematen diren bezala hau ere aurrekontuetara eman behar da. Hemen esaten da ari zarete hurrengoan lana errazten, esan duzuen gure bileretan ari zarete hurrengoak erabaki behar duten edo tokien jada jartzen duzue beraien soldatak baina hurrengoei gauza asko utziko dizkiegu gauza asko utziko dizkiegu erabakita. Ez bakarrik 2019rako, baita 2020rako eta baita 2021erako. Udal honek hartu dituen zenbait konpromisoen bidez, tartean gaurko plenoan onartuko duzuen aurrekontuetan daude hainbat konpromiso, Euskal Herria plazako arkupea eta pabimentazioa, eta horrelako beste asko. Zer arazo dago herritarrek jakin dezaten adostasun horretara iritsi garela EUDELen parametroetan mugituko garela etorkizunean? Helburu zen ez pasarazi lehenengo bi edo bigarren plenoa dauden berrian bere buruari bere soldata jarri izatea, goazen jartzea sistema bat, jarri dugu martxan, gure helburua da goazen sistema hori onartzea, herritarren jakin dezaten zein den onartu dugun sistema. Noski esan dezakezue, baina garai batean ere ez ginen homogeenok, aurrera begiratu behar da eta utzi dezagu atzea begiratzeari horrelako gauzetan. Nola eraikitzen dugun erabaki behar dugu. Eta adostasuna baldin badago publikoki eta jendea jakin behar dugu zein den. Ados gaude, ezta? hori ulertzen dugu.”*

...Alkatea: *Aurrekontuari helduko diot, berez Iñaki, problema da sistema bat badagoela, sistema existitzen dela aspaldian. Sistema badago eta hurrengo udal gobernua adinez nagusia izango da, gure garaian hartu genituen erabakiak hartu genituen bezala beraiek beraien erabakiak hartzeko. Ahaztu egin zait lehenago esatea ere, Paper Eskolako proposamena egin duzuna. Ahaztu egiten zaizu Iñaki, Paper Eskolan zu zarela udal honetako ordezkaria, ez EHBilduarena, beraz, proposamena egiten duzuenean, emendakina bezala sartzea, nola esan duzu Lore lehenago?, ez da oso elegantea, hori ere, ez da oso elegantea izan. Helduko diogu aurrekontuari. Aurrekontu puntua ixteko. 2019. urterako landu ditugun aurrekontu proiektua legealdi amaiera izanik hausnarketarako aukera ematen dute legealdi hasieran*



jarritako erronka eta helburuak zein puntuetaraino bete diren. Ez hainbeste tramite batzuen aurrekontuak izan badira ere, jendeak hori baloratu dezake. Baina legealdi hasieran ezarri ziren ardatz eta lehentasunak mantentzen ditugu 2019ko aurrekontu honetan ere. Hau da, tolosarren ongizatea bermatzea, tokiko ekonomia eta enplegua sustatzea, herri atseginago bat egitea beharrezkoa diren azpiegiturak eskainiz, gure ingura eta nortasuna zaindu eta euskera sustatzea eta legealdi honetan aipatua izan den gobernu ona eta parte-hartzea oinarri hartzea. Guzti hau bi helburu nagusiekin, bata da duela lau urte tolosarrei aurkezte genien programa horri amaiera ematea eta, beste alde batetik, etorkizunean aurrera eraman nahi ditugun proiektuen oinarriak ezartzea. Beti ere, tolosarrak gure proiektuen erdigunean kokatuz. Guretzat ezinbestekoa da egungo beharrei erantzutea eta horrela lan egitea baina etorkizunerako norabideak garatzen joatea baita ere. Ikuspen horren baitan, egin dugu lan lehen egunetik. Hainbat proiektu gauzatu ditugu Tolosan martxan jarri tolosarren beharrei erantzuteko eta, beste alde batetik, hainbat azterketa eta aurreproiektu egin ditugu etorkizunean ere Tolosak aurrera egiten jarrai dezan eta proiektu berrien bitartez, tolosarrei aukera berriak eskaintzeko gai izan gaitezen. Guztira, Begoñak aipatu duen bezala 26.915.000 ko aurrekontua izan da, iaz baino % 6,8 gehiago. Gure proposamena da beti antolatzen dugun bezala, lau multzo handietan sailkatzen dugu. Hurrenkera ez da izaten garrantzien hurrenkera bat, modu horizontalean aipatzen ditugu baina bai nolabaiteko antolaketa egiten duguna. Lehenengoa, tolosarren ongizatea bermatu eta hobetzeko, beti aipatzen dugun bezala aurrekontu sozialak direlako guk proposatzen dituguna, pertsonak eta gizarte politika dira gure lanaren oinarri nagusia eta horregatik Gizarte Zerbitzuetara bideratutako diru kopurua %3 handitu egin dugu, 2.770.000 euro. Gizarte politikaz hitz egiterakoan derrigorrez aipatu behar dugu Gizarte Zerbitzuen mapa. Legeak, lehen aipatu dugu, gizarte Zerbitzuen legea 2018koa da eta badakizue Gizarte Zerbitzuen kartera onartzeko denbora gehiago behar izan du zela. Eskumenak, gaur egun, erabat argi daude gure euskal sistema honetan eta horregatik legealdi honetan etxer-etxeko laguntza zerbitzua Udalak eskaini, kudeatu eta finantzatu du erabat. Beste alde batetik, Adinduen Egoitzak Foru Aldundiaren eskumena izanik lurramendiaren eskualdaketa egiteko buru belarri gabilta lanean, modu egokien egiteko eskualdaketa hori, gehienbat, ondarea eta langileagoaren gaiekin. Seguraski urtarrean egingo dugu Osoko bilkura bat gai honen ingurua. Baina, Gizarte Zerbitzuen mapa egiteko 2019ko aurrekontu hauek jasotzen ditu falta zitzaizkigun zerbitzuak. Zerbitzu horien aurreikusten dira: 1.3. zerbitzuari dagokiona, familia esku-hartzeari erreferentziari egiten diona, bi bertienteetan, bat mendekotasuna eta bestea bazterkeria arriskuan dauden kasuetan. Bigarren zerbitzua da, 1.7 zerbitzuari dagokiona, Eguneko arreta zerbitzua baita ere, bi alde horietan bazterkeria kasuan ABEGIn planteatuko genuke eta Mendekotasuna kasuan Uzturren planteatzen da bere ingurune naturalean. Urtariletik aurrera hasiko gara zerbitzu hauen plangintza lanetan. Ahaztu gabe gainera, Eskualdeko ikuspegia, hau da, Eskualdeko herritarrak zerbitzu berdinak izan ditzaten eta kategori ezberdineko herritarrak egon ez daitezen Eskualdeko lanketa ere egiten ari gara dakizuen bezala SIS txosten horren bitartez. Gizarte Politikan aipatu behar dut berezia bezala, Familia elkargunea. Asmoa da uste dut bihar sinatuko dela. Urtea amaitu aurretik sinatuko dugu Eusko Jaurlaritzarekin hitzarmena Familia Elkargunearen proiektua gauzatzeko. Proiektu hau Tolosan izandako kasu konkretu baten ondorioz sumatutako behar baten zerbitzua izan da, Familia elkargune honen bidez adin gabeek beren aitarekin, amarekin, tutorearekin edo bestelako familietako batzuetako kideekin harremana izateko duten eskubidea



bermatuko da eta horretarako gune bat eskainiko da. Gune hori Musika Eskola dagoen eraikuntzan kokatuko da. Doan erabiltzeko espazioak dira, segurtasun berme guztiak eskaintzen ditu adostasunik gabeko familia nukleoa hausten den egoeretan: gatazka, tratu txar eta beste hainbat egoeretan. Disziplina anitzeko ekipo psikosozialak adituak dituzte eta horiek uneoro zaintzen eta babesten dituzte adingabeak. Erakunde arteko lankidetzaren proiektu bat izan da Jaurilaritzako Lan eta Justiziarekin Sailarekin gauzatutakoa. Zerbitzu hau ez da mugatuko Tolosako eremura, gure eskualdetik haratago Oriako Buruntzari emango dio zerbitzua. Beste aipamen berezi bat, baita ere, Udalaren lanpostuak egonkortzeko Enplegu Plana. Uste dut oso inportantea dela aipatzea, gainera Plan honek aukera eman digulako langile bakoitzaren egoera aztertzeko. Ez dela hori hain ohikoa izaten eta tartean elkarrizketa asko izan dira. Prozesu guzti horren ondorioz, alderdi politiko guztien eta sindikatuen babesarekin 2019. urteko lanpostuen eskaintza publikoa jarriko da martxan. Pertsonen alor onetan aipamen berezi bat merezi du Herritarren Arreta Zerbitzu berriak, Udate deiturikoa. Udalak herritarrari arreta zerbitzu integral bat emateko buru-belarri gabilta lanean. Uste dut herritarrak tramiteak modu erosoagoan egiteaz gain administrazioa eta herritarren arteko harremanean aro berri bati hasiera emango diogula. Prozesu bat izango da eta ari garen heinean hobetzen joango garena. Sail guztietako izapideen eskuliburuaren errebaso bat ere egin dugu eta herritarren lekuan jartzeko ariketa egin dugu. Ariketa honek garbia azaleratu du aldaketa batzuk egitearen beharra. Horretarako 2019. urteko aurrekontu honetan aurreikusiko ditugu baliabide materialak eta pertsonalak eta Udaletxeko sail guztiak bat egin dute, bai helburuarekin eta baita ere zerbitzu publikoa eskaintzeak ekartzen duen erantzukizunarekin. Beraz, bada aldaketa sakona etorkizunean herritarrak Udalarekin izango duen harremanean erosotasuna eta eraginkortasuna zein izango duen zerbitzu publiko bat lantzea aldera. Bigarren saila da, Tokiko Ekonomia eta Enplegua sustatzea, politika sozioekonomikoa eraginkorrak herritarren ongizatearen berme direlako. Hori dela eta, hasi hasieran, legealdi hasieratik ekonomiaren eta enpleguaren sustapena lehentasunezko gaia izanda guretzat eta hori behi eta berriz azpimarratu dugu horretan. Tolosako enpresa ehuna eta udalaren arteko harreman estuago bat lortu dugu, gerturatu gara, eta gure eskualdeko aberastasun sortzaile nagusi diren heinean errealitatea gertutik ezagutu ondoren, proiektu berritzaileak garatzeko dirulaguntzak martxan jarriko dugu. Aurtengoan badaude jada enpresak proiektuan parte hartuko dutenak, eta 2019ko aurrekontu horretan ere izango da aukera. Tolosaldeako Lanbide heziketa sustatzen jarraitu behar du udalak etorkizuneko industriaren oinarri eta berme modura. Enplegu plana, baita ere, Garapen agentziarekin eta Lanbidekin elkarlanean langabezian dauden tolosarrei lan aukera berriak eskaintzeko. Badaukagu orain erreminta oso inportantea Tolosaldea Garatzenen, Garapen agentzian, plan estrategiko berria egin dugulako legealdi honetan Tolosaldea Bikain izenekoa 2018-2025. Garapen ekonomiko alorrean aipatu behar da derrigorrez, baita ere, Apatza Errekako industriagunea eta honen garapena bultzatzeko beharrezkoa diren tramiteak egingo dira 64.849 m² ko industria eremu berria eskaintzeko. Horretan bagabiltza elkarlanean Ibarako udaletxearekin batera. Merkataritza sustatu eta babesteko Merkataritza saila sortu eta dirulaguntzak nabarmenki areagotu dira. Baita ere jaso da belaunaldi aldaketa sustatzeko programa sustatzen jarraitzeko diru partidak. Turismo bultzatu legealdi honetan uste dut Euskal Herria plazako alojamentu berria badela aldaketa inportante bat turismoari begira eta datorren urterako Tolosaldeako turismo bulego berria irekin nahiko genuke. Coworking espazio berria ezarria legealdi honetan Emari jarri delako



martxan, ekintzaile eta proiektu berrien sustatzeko eta izan duen harrera ona dela eta, ba honi buruzko kanpaina berriak egingo ditugu. Ezinbestean, aipatu behar da Garapen ekonomikoa aipatzen denean Tolosan ohiko azokak eta baita ere azoka bereziei eman zaien indarra eta bultzada. Hirugarren saila handia mugikortasuna hobetzea eta ingurugiroa zaintzea. Proiektu guztiak aipatu ditu Begoñak eta ez ditu errepikatuko, baina azpimarratu nahi ditut etorkizunerako bi erronka nagusi, bere diru ekarpena dutenak 2019ko aurrekontuan eta dira bata, Zumardi Txikiko eremua berreskuratzea eta Rondilla kalea eraberritzea. Uste dut bi proiektu horiek gauzatzen direnean gauzatuta ere etorkizuneko Tolosan eragin eta garrantzi handia izango dutela. Bi azterketa baita ere aipatzeagatik, orain amaitze dagoen Mugikortasunaren azterketa eta 2019rako aurreikusita dagoen Irisgarritasunarena. Laugarrena zehar lerroak dira, gure ADN-aren parteak direnak, Euskara, Berdintasuna, Gardentasuna eta Parte-hartzea. Badakizue euskararen erabilera sustatzeko 3 plana izango dela datorren urtean abian jarri dena baina azpimarratu nahi dut orain dela gutxi Eusko Jaurlaritzak ematen duen ziurtagiri ofiziala jaso duela Tolosako udalaren euskararen presentzia eta erabilera eta hizkuntzaren normalizazioaren mailan egiaztatu eta aitortzen duena. Hau da euskararen kalitatearen ziurtagiria, nolabait euskararen erabileraren normalizazioan sustapena eta aktibazioan udalak bere osotasunean burutzen ari den lanaren errekonozimendua, abenduaren 18an jaso genuen Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren Bingen Zupiriaren eskutik. Zeharkako alor honetan ezin da aipatu gabe utzi Emakume Etxearen proiektua gauzatzeko aurreikuspena baita ere. Proiektu honek udal ordezkari guztien babesa du eta aurreko proiektuaren lanketa izugarria egin da parte-hartze prozesu baten bitartez. Eskertu nahi nieke talde ezberdinetan parte hartu duten emakume guztiei. Lan handia egin da eta uste dut dagoeneko eraikin dugula oinarri sendoa etorkizunerako berdintasuna Tolosan eta Tolosaldean beste modu batera landu ahal izateko, sinergia bilatuz eta proiektu berriak gauzatzuz. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera lanean gabiltza berdintasunaren alorreko nazioarteko kongresu bat gauzatzeko Tolosan. Horretarako uste dut Tolosa eszenatoki egokia dela, Berdintasun sailatik egiten den lanketa guztiagatik, bai Jabetza Eskola dela, bai Hezkidetza Mahaia dela, bai Protokolo Mahaian lanketa handia ere egin dela. Adibide modura Indarkeria egoera baten aurrean lehen arreta juridikoan egin den lanketa guzti hori. Eta azkenik, herritarren parte-hartzerik gabe proiektua zentzua ere galdu dezaketelako parte-hartze politiketan aurtengo legealdia egindako lanketa salto kualitatibo eta kuantitatibo inportantea izan da. Udalaren egunerako jardunean parte hartze integratze izan da helburu nagusia. Tolosa osatzen proiektu horren, Tolosatzen deitzen horrek, horren proiektuaren baitan aurrerapena handia egin dira legealdi honetan helburu nagusi horrekin. Gero eta kanal gehiago irekitzen ari gara herritarren ekarpenak jaso ahal izateko eta datorren urtean, 2019ko aurrekontu horretan ere, jasota dago ekarpena lan honi jarraipena egiteko.”

...Lore Agirre Zipitria (EHBildu): “Motz esan da: agian ahaztu egin zaizue hau aurrekontu eztabaida da ezta legealdiaren balorazioa egiteko momentua. Hala ere, despistatu egin gara horrelako azalpena eta gero baina ez dugu aipatu gure posizioa zein izango den aurrekontuaren aurrean. Lehen aipatu den bezala gure asmo zen, eta ekarpenak bide horretatik eginda zeuden, bueno aurrekontuek zenbait proiektu jasotzen zituelako, beste urteetan aipatutakoak eta egingarriak izan zitezkeenak, ekarpen berri hauek osatuz, egokia izango zela, jarrera oso



TOLOSAKO
UDALA

positiboekin etorri gara, intentzio horrekin baina ez dudana berria izango, alkatearen ahotik entzun ditugun gauzak entzun eta gero, gure bozka kontrakoa izan behar du bestelako aukera ez zaigulako uzten."

... Alkateak: "Ez, alkatearen ahotik entzundakoak entzun eta gero, ez. Esan zuen posizioa markatu ondoren, bakoitzak erabakitzen du eta bakoitza da bere iritzia jabe."

OGASUN BATZORDE INFORMATIBOAREN 2018KO ABENDUAREN 19KO IRIZPENA

Begoña Tolosak udalaren aurrekontuaren edukia azaldu du eta EH Bilduk bezperan aurkeztutako proposamenei banan-banan erantzun die.

Proposamen horietatik bi sartu ditu udal gobernuak aurrekontu proiektuan.

Kontuhartzaileak ondorengo adierazpenak egin ditu:

- Iurreamendiko aurrekontuan gastu eta sarreretan zenbateko berdina sartu dela, urtarrilaren 1etik aurrera egoitzaren kudeaketa Kabiaren eskuetan geratuko baita.
- Tolosa Lotzen-eko aurrekontua ere egin dela 2019rako, oraindik sozietatea desagertzeko Merkataritza Erregistroan azken tramiteak egitea falta delako.
- Aurrekontuko eranskinei dagokionez, bereziki konpromiso kredituen edukia azaldu du.

Ondoren bozkatu egin da aurrekontu proiektua, ondorengo emaitzarekin:

Begoña Tolosa (EAJ): Aldeko botoa
Nuria Carbonell, Iñigo Alonsoren izenean (EAJ): Aldeko botoa
Patxi Amantegi, Jokin Azkueren izenean (EAJ): Aldeko botoa
Cristian Fernandez (PSE): Aldeko botoa
Kristina Pelaez (EH-BILDU): Abstentzioa.
Iñaki Irazabalbeitia (EH-BILDU): Abstentzioa.

Beraz, batzordeak diktaminatu du 2019ko Aurrekontu Orokorrari hasierako onarpena ematea. Proiektuaren laburpena kapituluka hau da:

Tolosako Udalaren Aurrekontua.



TOLOSAKO
UDALA

SARRERAK

GASTUAK

KAP.	IZENA	EUROAK	KAP.	IZENA	EUROAK
1	Zuzeneko zergak	5.711.500,00	1	Pertsonal Gastuak	9.281.502,04
2	Zeharkazo zergak	449.169,51	2	Ondasun arrunt eta zerbitzuak	9.925.023,00
3	Tasak eta bestelako sarrerak	4.558.700,00	3	Finantza Gastuak	47.500,00
4	Transferentzia korranteak	15.307.081,76	4	Transferentzia korranteak	4.222.720,48
5	Ondare sarrerak	488.250,00	6	Inbertsio errealak	2.172.350,00
6	Inbertsio errealean besterenganatzea	400.180,35	7	Kapital Transferentziak	198.500,00
7	Kapital Transferentziak	0,00	8	Finantza Aktiboak	0,00
8	Finantza Aktiboak	0,00	9	Finantza Pasiboak	1.067.286,10
9	Finantza Pasiboak	0,00			
	GUZTIRA	26.914.881,62		GUZTIRA	26.914.881,62

Iurreamendi egoitzaren Aurrekontua

SARRERAK

GASTUAK

KAP.	IZENA	EUROAK	KAP.	IZENA	EUROAK
1	Zuzeneko zergak	0,00	1	Pertsonal Gastuak	1.715.000,00
2	Zeharkazo zergak	0,00	2	Ondasun arrunt eta zerbitzuak	3.583.750,00
3	Tasak eta bestelako sarrerak	1.827.200,00	3	Finantza Gastuak	0,00
4	Transferentzia korranteak	3.496.500,00	4	Transferentzia korranteak	0,00
5	Ondare sarrerak	50,00	6	Inbertsio errealak	25.000,00
6	Inbertsio errealean besterenganatzea	0,00	7	Kapital Transferentziak	0,00
7	Kapital Transferentziak	0,00	8	Finantza Aktiboak	0,00
8	Finantza Aktiboak	0,00	9	Finantza Pasiboak	0,00
9	Finantza Pasiboak	0,00			
	GUZTIRA	5.323.750,00		GUZTIRA	5.323.750,00

Erretengibel S.A.ren Aurrekontua

SARRERAK

GASTUAK

KAP.	IZENA	EUROAK	KAP.	IZENA	EUROAK
1	Zuzeneko zergak	0,00	1	Pertsonal Gastuak	0,00
2	Zeharkazo zergak	0,00	2	Ondasun arrunt eta zerbitzuak	95.970,00
3	Tasak eta bestelako sarrerak	1.500,00	3	Finantza Gastuak	630,00
4	Transferentzia korranteak	122.085,00	4	Transferentzia korranteak	60.000,00
5	Ondare sarrerak	40.000,00	6	Inbertsio errealak	63.500,00
6	Inbertsio errealean besterenganatzea	0,00	7	Kapital Transferentziak	135.000,00
7	Kapital Transferentziak	198.500,00	8	Finantza Aktiboak	0,00
8	Finantza Aktiboak	0,00	9	Finantza Pasiboak	6.985,00
9	Finantza Pasiboak	0,00			
	GUZTIRA	362.085,00		GUZTIRA	362.085,00

Tolargi S.L.ren Aurrekontua



TOLOSAKO
UDALA

SARRERAK

KAP.	IZENA	EUROAK	KAP.	IZENA	EUROAK
1	Zuzeneko zergak	0,00	1	Pertsonal Gastuak	449.881,00
2	Zeharkazo zergak	0,00	2	Ondasun arrunt eta zerbitzuak	805.387,00
3	Tasak eta bestelako sarrerak	1.417.866,00	3	Finantza Gastuak	846,00
4	Transferentzia korranteak	0,00	4	Transferentzia korranteak	0,00
5	Ondare sarrerak	0,00	6	Inbertsio errealak	50.000,00
6	Inbertsio errealeen besterenganatzea	0,00	7	Kapital Transferentziak	0,00
7	Kapital Transferentziak	0,00	8	Finantza Aktiboak	0,00
8	Finantza Aktiboak	-96.752,00	9	Finantza Pasiboak	15.000,00
9	Finantza Pasiboak	0,00			
	GUZTIRA	1.321.114,00		GUZTIRA	1.321.114,00

GASTUAK

Tolosa Lantzen S.A.ren Aurrekontua

SARRERAK

KAP.	IZENA	EUROAK	KAP.	IZENA	EUROAK
1	Zuzeneko zergak	0,00	1	Pertsonal Gastuak	63.600,00
2	Zeharkazo zergak	0,00	2	Ondasun arrunt eta zerbitzuak	381.000,00
3	Tasak eta bestelako sarrerak	63.000,00	3	Finantza Gastuak	0,00
4	Transferentzia korranteak	0,00	4	Transferentzia korranteak	0,00
5	Ondare sarrerak	535.000,00	6	Inbertsio errealak	480.000,00
6	Inbertsio errealeen besterenganatzea	0,00	7	Kapital Transferentziak	0,00
7	Kapital Transferentziak	0,00	8	Finantza Aktiboak	0,00
8	Finantza Aktiboak	326.600,00	9	Finantza Pasiboak	0,00
9	Finantza Pasiboak	0,00			
	GUZTIRA	924.600,00		GUZTIRA	924.600,00

GASTUAK

Tolosa Lotzen S.A.ren Aurrekontua

SARRERAK

KAP.	IZENA	EUROAK	KAP.	IZENA	EUROAK
1	Zuzeneko zergak	0,00	1	Pertsonal Gastuak	0,00
2	Zeharkazo zergak	0,00	2	Ondasun arrunt eta zerbitzuak	1.000,00
3	Tasak eta bestelako sarrerak	0,00	3	Finantza Gastuak	0,00
4	Transferentzia korranteak	1.000,00	4	Transferentzia korranteak	0,00
5	Ondare sarrerak	0,00	6	Inbertsio errealak	0,00
6	Inbertsio errealeen besterenganatzea	0,00	7	Kapital Transferentziak	0,00
7	Kapital Transferentziak	0,00	8	Finantza Aktiboak	0,00
8	Finantza Aktiboak	0,00	9	Finantza Pasiboak	0,00
9	Finantza Pasiboak	0,00			
	GUZTIRA	1.000,00		GUZTIRA	1.000,00

GASTUAK

Tolosa Gasa S.A.ren Aurrekontua (%60a)



TOLOSAKO
UDALA

SARRERAK			GASTUAK		
%60a			%60a		
KAP.	IZENA	EUROAK	KAP.	IZENA	EUROAK
1	Zuzeneko zergak	0,00	1	Pertsonal Gastuak	40.500,00
2	Zeharkazo zergak	0,00	2	Ondasun arrunt eta zerbitzuak	299.400,00
3	Tasak eta bestelako sarrerak	516.000,00	3	Finantza Gastuak	0,00
4	Transferentzia korronteak	0,00	4	Transferentzia korronteak	0,00
5	Ondare sarrerak	1.380,00	6	Inbertsio errealak	3.000,00
6	Inbertsio errealen besterenganatzea	0,00	7	Kapital Transferentziak	0,00
7	Kapital Transferentziak	0,00	8	Finantza Aktiboak	0,00
8	Finantza Aktiboak	-174.480,00	9	Finantza Pasiboak	0,00
9	Finantza Pasiboak	0,00			
	GUZTIRA	342.900,00		GUZTIRA	342.900,00

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Beloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda, Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia eta Cristian Fernandez Susin.

Aurkako botoak: Ibai Iriarte San Vicente, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin eta Pedro Manuel Etxabe Zabala.

Beraz, Udalbatzak 2019. ekitaldirako Udal Sektorre Publikoaren aurrekontu orokorra eta aurrekontua gauzatzeko araua hasieraz **onartzea** gehiengoz **erabaki du**.

3. 2018/17 kreditu gehigarrien modalitatean egindako kreditu aldaketaren espedienteari buruzko 2018/2242 zenbakidun alkatetza dekretuaren jakinarazpena.
3. Dar cuenta del Decreto de Alcaldía 2042/2018 que hace referencia al expediente sobre la modalidad de crédito adicional 17/2018.

Parte-hartzeak:

... Begoña Tolosa Mendia (Ogasun zinegotzia): *“Hamazazpigarren kreditu aldaketa gehigarria modalitatekoa jakinarazi plenoari. Finantziarioa gerakinetatik da eta kopurua 288.652 euroetako. Multzoka azalduz, zati inportanteena dagokio Informatikako eskaera bati, non Udateko obra hori aurre eramateko gaur egun Udaten aurkitzen den lekuan dago Informatikako ekipoa RAC-en kokatuta dago. Honen kokapena aldatu egin behar da lehenengo pisura. Horretaz aparte, Udaletxe barruko sare osoa berritu edo egokitu behar da. Izan ere hamabost urte baditu eta zahartu egin da. Horretarako partida handiena izango da, 123.000 eurokoa. Gero*



beste hainbat obra egiteko, 64.000 euro; landa auzoetan ematen den taxi zerbitzurako, oso ondo funtzionatzen duena, urte bukaera aurrekusi egin da beste 12.000 euro gehitzea. Bestalde, ekipamenduren barruan 25.000 euro jarri ditugu. Alde batetik, oholtza berri bat erosteko, muntaia lanak erosoagoak eta azkarragoak izateko. Bestalde batetik txosna berri bat erosiko da, gaur egun dagoena homologatu gabe dagoelako. Beste hainbeste gastu txiki daude, Olentzeroaren basoa txukundu, SIIseko azterketaren dagokigun zatia ordaindu eta baita organiko sentsibilizazio plan bat aurrera emateko ere. Guztira 288.652 euro.”

OGASUN BATZORDE INFORMATIBOAREN 2018KO ABENDUAREN 19KO IRIZPENA

Lehedakariak, 2018ko aurrekontuari dagokion 17. kreditu aldaketarako espedientearen kontu eman du.

Espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egin da eta jasotzen dituen partidak hauek dira:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0300.626.01.920.20 2018	INFORMAZIO PROZESUETARAKO EKIP- POAK. INFORMATIKA	37.000,00	123.000,00	160.000,00
1 0700.223.01.441.20 2018	GARRAIOAK. TAXI ZERBITZUA	36.000,00	12.000,00	48.000,00
1 0800.227.04.337.20 2018	KONTRATUAK. GAZTERIA	94.897,00	15.420,00	110.317,00
1 1100.226.06.431.10 2018	JARD.SOZIO KULTURALAK. FERIA ETA AZOKAK	159.486,94	2.000,00	161.486,94
1 0900.211.01.326.10 2018	ERAIKINEN MANTENTZE-LANAK.E.P.A - H.H.I.	2.700,00	15.958,00	18.658,00
1 0700.601.01.153.20 2018	ERABILERA OROKORRERAKO URBANI- ZAZIOAK. BIDE PUBLIKOAK	222.000,00	48.717,00	270.717,00
1 0700.226.99.162.20 2018	BESTE HAINBAT GASTU. HONDAKINEN KUDEAKETA	5.000,00	20.000,00	25.000,00
1 0700.625.99.153.40 2018	EKIPAMENDUA. ZERBITZU OROKORRE- TARAKO LANTALDEA	63.698,00	25.250,00	88.948,00
1 0400.221.99.135.10 2018	BESTELAKO HORNIDURAK. BABES ZIBI- LA	1.000,00	1.500,00	2.500,00
1 0500.227.04.231.00 2018	KONTRATU SOZIO KULTURALAK. GIZAR- TE ZERBITZUAK	229.821,00	7.734,00	237.555,00
1 0700.771.01.920.31 2018	KAPITAL TRANSFERENTZIAK ENPRESEI	0,00	17.073,00	17.073,00
	GUZTIRA	851.602,94	288.652,00	1.140.254,94

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
------	---------	----------	------------



a	2 870.01 2018	DIRUZAINZA GERAKINA, GASTU OROKORRETARAKO	288.652,00
FINANTZAKETA GUZTIRA			288.652,00

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

- 4. Alkatetzako dekretu hauen berri ematea: 2018ko azaroaren 1etik 30era.(2018/2.055 – 2018/2.202).**
- 4. Notificación de los decretos emitidos por la Alcaldía del 1 al 30 de noviembre de 2018 (2018/2.055-2018/2.202).**

Alkatetzak 2018ko azaroaren 1etik 30era bitartean (2018/2.055-2018/2.202) egin dituen dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Denak jakinaren gainean geratu dira.

Lore Agirre Zipitria, EHBilduko zinegotzia irten egin da.

- 5. Mozioa: Auzitegi Gorenaren adierazpena.**
- 5. Moción: Declaración del Tribunal Supremo.**

Parte-hartzeak:

Lehenik Alkateak hitza eman dio Ahal Duguko bozeramaileari. Bere parte-hartzea espedientean jasota dago.

... Ibai Iriarte San Vicente (EHBildu): "Gure aldetik garbi daukagu herritarren demokrazia maila modu ezberdinetan aztertzen dela eta oinarrietakoa da 3 boteren arteko banaketa egotea. podere judiziala, legegilea eta exekutiboaren arteko banaketa bat eman behar dela. Espainian ez da ematen baina Espainian auzia beste banaketa batzuk ematea, hau tarte. Hala ere, zuek mozioa planteatzen duzuen bezala arazoa badirudi historikoki egon den bipartidismoaren artean ematen den eserleku eta pertsonen izendatzean dagoela. Gure ustez, arazoa ez dago hor eta EHBilduren ustez eman ez den trantsizio batean dago arazoa. Arazoa frankismotik pseudodemokraziara emateko pauso horretan, zenbait izen aldatu baina pertsonak eta egiteko erak ez aldatzean dago, horren erakusle Tribunal de Orden publico itxi eta hurrengo egunean Audiencia Nacionala irekitzearena. Zentzu horretan Espainia bera eta Espainiaren izate antidemokratikoa dago arazoaren oinarri. Amigismoa esaten duzue eta bai amigismoa ematen da, baina amigismoa ez da ematen pertsona batek bere laguna izendatzen duela, baizik eta amigismoa ematen da alderdi politikoen bermatu nahi dutelako Auzitegien erabilera bermatzen dutelako, erabilera politikoa bat egiteko eta Espainiako batasun ekonomiko eta politikoa bermatzeko. Hala ere, gure



TOLOSAKO
UDALA

aldetik baita kontrol politiko hori bermatzeko auziegiak erabiltzearena ez da berria eta nik uste herri honek eta Euskal Herriak eta euskaldunok sarri ikusi dugula hori gure oinarritzko eskubidean nola izan diren, alderdien ilegalizazioa direla, torturak kasuak nola zapuztu eta isildu diren eta azkenean nola erabili den mekanismo guzti hori herri baten nahi demokratikoak isiltzeko. Eta zentzu horretan, kurioa iruditzen zaigu, lehenik eta behin, Podemosen eskaera hau izatea hipoteken legearen aurrean, iruditzen zaigu salbajada bat dela baina beste salbajada handiagoak ematen dira jende asko espetxeratuta daudelako, gaur bertan erabaki dute Katalan preso politikoak noiz eta nola epaituko dituzten eta hori ere erabaki politikoa da. Kurioa da gai hau eta bi pertsona hauen Lesmes eta Picazoren kargugabetzea eskatzea guretzako Lesmes eta Picazo bi figura besterik ez direnean, arazoa sisteman dagoelako, eta Espainia delako arazoa. Espainiak bere herritarren eskubideak urratzen ditu seguraski baino euskaldunonak argi eta garbi. Beraz, gure arazoa, euskaldun gisa eta euskal herritarrok gure buruaren jabe izateko daukagun arazoa ez da Lesmes eta Picazo, Espainiar estatua eta Espainia osoa da. Horretaz aparte, proposamena iruditzen zaigu berandu iritsi dela, azaro hasiera hasierako gaia da eta abenduaren amaieran gaude. Bestalde, egia Euskal Herrian lehenengo etxebizitza hau guretzat ez da arazoa sententzia hau baizik eta beste erakusle bat Espainiaren izaera antidemokratikoarena. Beraz, esan bezala, kuriosa da zuek hau salatzea noiz eta non zuek ere negoziatu zenuten aulki banaketa horretan zerbait eskuratu ahal zenuketen horretan egon zineten. Ez dakit ez du ulertzen, niretzat berandu dator mozio hau eta aparte jo puntua ez dago ondo, ez dago Lesmenen, ez Picazonen, baizik eta Estatu Espainiarraren antidemokratikoan dago eta horregatik abstenitu egingo gara.”

... Alkatea: *“Esan beharra daukat berandu iritsi zeneko erantzukizuna bai dela nirea. hasieran ez genuelako ulertu idatzia sartu zenutenean mozio bat zenik, gero forma eman behar izan genion eta espero dezagun hemendik aurrera horrelako planteamenduak egiten dituzuenean segituan sartzea. Guk ere uste dugu Estatu mailako eztabaia dela, bueno horrela da berez. Hipoteken gainean dauden zergen inguruan Autonomi Erkidegoan politika fiskala dakizuen bezala ezberdina da eta beraz, ez da aplikatzen behintzat lehen etxebizitzako gaineko hipoteka horretan. Horregatik, gu ere abstenitu egingo gara.”*

Udal Idazkariak mozia irakurri du. Honela dio:

AUZITEGI GORENAREN ADIERAZPENA

Demokraziak botere judizialaren erabateko independentzia defendatu behar du, estatuko bo botereekiko independentzia eta, nola ez, botere ekonomikoekiko, mediatikoekiko eta edozein presio-ingarrekiko independentzia, hain zuzen ere herritarren zerbitzura dagoen justizia bermatu dadin.

Helburu horren emaitza 1zaera askotako hainbat faktoreren menpe dago, bai eta askotariko prebentzio- eta aurreikuspen-neurriak hartzearen menpe ere: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko (BJKN) kideak izendatzeko sisteman, BJKNren funtzionamenduan, diziplina-sistemaren funtzionamenduan, postu judizialek sartzeko eta mailaz igotzeko sisteman, goi kargu judizialak izendatzeko mekanismoetan



TOLOSAKO
UDALA

(Probintzia Auzitegietako , Justizia Auzitegi Nagusietako eta Audentzia Nazionaleko buruak, eta Aretoko presidentek eta Auzitegi Goreneko magistratuak), prozesu horien guztien gardentasunean, etab.

Hala ere, Espainiako Konstituziotik eratorritako prozesu demokratikoak urte askotan zehar kudeatu dituen alderdi biko sistemak bazterrean utzi du Konstituzio Auzitegiak bere garaian adierazi zuen oharra, hain zuzen ere Kontseiluko kideen izendapenarekin lotuta honako hau adierazi zuenean: "Egia esan, Konstituzio Arauaren helburua urratzeko arriskua dago Ganberek, euren proposamenak egiten dituztenean, helburu nagusia ahazten badute eta, honako hau ez den beste esparru batzuetan onargarriak diren irizpideei jarraituta , euren baitan <lauden indarren bereizketari bakarrik erantzuten badiote eta bete beharreko postuak alderdien artean banatzen badituzte, legebiltzarrean duten indarraren arabeko proportzioan. Alderdien estatuaren logikak izaera horretako jardunak sortzen ditu, baina logika horrek berak behartu egiten gaitu alderdien arteko borroka botere-esparru jakin batzuetatik kanpo uztera, baita, modu berezian , Botere Judizialek kanpo ere."

Bere garaian iragarritako aurreikuspenik okerrenak egia bihurtu <lira. Azken 5 urteetan, BJKNko eta Auzitegi Goreneko (AG) presidentea Carlos Lesmes izan den garaian, arbitrariotasun, nepotismo eta Alderdi Popularrarekiko menpekotasun egoera onartezin hatera eraman dira BJKN eta AG.

Batez ere, BJKNko goi magistraturetan egin diren izendapenak azpimarratu behar dira, bereziki Auzitegi Goreneko Bigarren eta Hirugarren Aretotan urte honetan bertan. Izan ere, adiskidetasun ideologikoak merezimenduek eta ahalmenek baino garrantzi handiagoa izan du. Adibidez, Díez Picazoren kasuan, Lesmesen eta Gallardonon laguna izateagatik hautatu zuten; horrek sekulako ekaitza sortu zuen Botere Judizialean. Horren guztiaren ondorioz, hain justu, Auzitegi Gorenak indargabetu egin ditu Espainiako bankuei eragiten zieten jardun juridiko dokumentatuen ordainketarekin lotutako epaiak, horretarako benetan zalantzan jartzekoak diren mekanismoak erabiliz Aretoko presidentek, hasiera beretik polemikarekin lotua egon denak eta bankuaren unibertsitateko irakasle oiak, bigarren sekzioko irizpidearen zuzenketa helarazi du osoko bilerara.

Horregatik guztiagatik, erantzukizunak hartzea eskatzen dugu, eta zehazki udalari:

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari eskatzen diogu Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiko eta Auzitegi Goreneko presidente Carlos Lesmes Serrano jauna lehenbailehen kargutik kentzeko, bai eta Hirugarren Aretoko presidente Díez Picazo jauna ere, hipotekak sinatzearen ondoriozko jardun juridiko dokumentatuen gaineko zerga ordaintzearekin lotutako errekurtsuak ebazteko gaitasunik eza nabarmena adierazi baitute.

Egoera hau (hipoteken gaineko zerga hau ordaindu behar izatea, alegia) jasan duten eta jasaten ari direnekiko elkartasuna adieraztea aho betez, Tolosako udala, herritarren ordezkari den heinean, herri baten solidaritatea erakusteko eta herritarren eskubideen urraketen aurkako jarrera aktiboa aurkezteko.



Azkenik, Gorte Nagusiei eskatzen diegu BJKNko kideak izendatzean STC 108/1986 epaiak ezarritako konstituzio-araubideekin bat etortzea, hain zuzen ere "Kontseiluaren osaerak gizartean dagoen aniztasunaren isla bete dezan eta, bereziki, Botere Judizialak berak hori berma dezan". Azken batean, gobernuaren eta botere judizialaren arteko independentzia bermatzea nahi dugu, alderdi politikoek legebiltzarrean lortzen dituzten izendapenak alde batera utzita. Honekin gure herriaren historian zehar eman diren epai politizatuak berriro errepika ez daitezten."

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Abstentzio botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda, Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Ibai Iriarte San Vicente, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak **ez du onartu** Auzitegi Gorenaren adierazpena izeneko mozioa.

6. Galderak eta eskaerak.

6. Ruegos y preguntas.

Parte-hartzeak:

... Onintza Lasa Arteaga (EHBildu): *"Nik galdera egin nahi dut, berandu dator, niri orain lehengo ostegun ostiral etorri zitzaidan, kontrastatzeko denbora eduki dudanean, jada plenoa zegoen. Askotan aipatu da Emari Coworking-aren gaia, hasi berria dela, eta alde batetik pentsatu dut aproposa datorrela, etorkizunera begira kontutan edukitzeko hainbat gauza. Izan ere, iruditu zitzaidan bideoan Emari Coworking izena ematea ekainaren 26ra arte. Kontua zen dirulaguntzak ematea enprendizajea sustatzeko e.a. Hor dauden bideoetan emakumearen papera, emakumearen figura nik kontrastatu izanarekin ez dakit oso egokia agertzen den. Eman nahi diren berdintasunaren mezuekin, korresponsabilidadea ez da inon agertzen. Nik bakarrik bi ikusi ditut, lau omen daude. Nik hitz egingo dut bakarri ikusitakoarekin, izan ere, batean azaltzen da emakumea desbordatuta, estres puntu batekin, gauzak erori egiten zaizkio, ez du oso itxura ona ematen emakumeak. Gizonak ez dakit zergatik ez den agertzen. Beste bideoan azaltzen da emakumea etxean balego bezala lanean ariko balitz bezala eta atzean entzuten zaio umeari. Hori da nik ikusitako biak. Beste bitaz ez dut hitz egingo. Ez dakit zer mezua eman nahi den, korresponsabilidadetaz ez behintzat, kontziliazioa nola halakoa, eta kontziliatzen dena emakumea da. Kontrastatu ahal izan dut, ahal izan dudanean, Berdintasun teknikariekin, hari ez zitzaion galdetu. Ez dakit galdetu behar zaion baina iruditzen zait transbertsalitea den heinean galdetu egin behar zitzaiola, batez ere Tolosako udaleko logoa daukalako atzean eta esan bezala jende asko ari delako hori ikusten.*



TOLOSAKO
UDALA

Beraz, ez dakit horren berri daukagun. Esan bezala, hilabete batzuk beranduago enteratu naiz, baina berria denez, kontutan eduki behar diren gauzak dira. Azkenean gure imajina da, Emakumearen Etxea aipatu dugu, uste dut zintzo ari garela Berdintasunaren bidean baina horrelako gauzak oso fabore eskasa digute koherentziaren bidean. Horren inguruan jakin nahi nuke ez dakit honen berri daukazuen.”

... Alkatea: *“Ez dit atentziora deitu baina modu guztietara kontrastatuko dugu Berdintasun teknikariek.”*

... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez (EHBildu): *“Ez dakit den hirugarren edo laugarren aldia gaia hau mahai honen gainean jartzen dudana. Udal Gobernu honek konpromiso bat hartu zuen EHBildurekin, autobus zerbitzuaren publikazioari buruz, txosten bat eskatuko zuela. Hasieran etxeko baliabideekin, gainezka daudela etxeko baliabideak. Gero kanpoko enpresa bati enkargatuko zitzaioala txosten hori, data bat ere jarri zitzaion abenduaren 31. Jakin nahi nuke zer egoeratan dagoen, Benetan sentsazioa da, azkenean arpa jotzean ari zaizkigutela.”*

... Alkatea: *“Egia da egingo dugula, baina oraindik ez dugula azterketa enkargatu. Arrazoi bakarra da lanez gainezka gabiltzala eta dabiltzala teknikariak baita ere.”*

... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez (EHBildu): *“Memoriaz ari naiz baina aurreko batean ere horrelako zerbait edo antzekoa esan zenuten. Estimatu genuke hurrengo batean gaia atera ez behar izatea hurrengo pleno batean.”*

... Ibai Iriarte San Vicente (EHBildu): *“Urtero modua, urtarrilaren 12an herri honetan eta bizi dugun gatazka egoeraren ondorioz, oraindik Espainia eta Frantziako espetsuetan dispersatuta dauden herritar asko gehiegi ditugu eta horien eskubidez, beraien senideen alde, deituta dauden bai Baionan zein Bilbon deituak daude manifestazioetara dei egiteko edo deialdiarekin bat egiten dugula adierazi nahiko genuke. Pentsatzen dut eskubideen inguruan hitz egiten dugun neurrian denon bat egiten dugula deialdiarekin. Nahiko nuke, ez bakarrik Ehbilduren izenean baizik eta uste dut hemen gaude 17 pertsonon izenean, manifestaziora jendeari. Tolosarrei, hurbiltzea eskatu. Pertsona guzti hauen eskubideak eta beraien gizarteratzeko eskubide guztiak bermatuak izan ditzatela eskatzen dugu.”*

Besterik gabe, 21:30ean, bilera bukatutzat eman da, eta nik, idazkari naizen honek, hori guztia ziurtatzen dut.

ALKATEA

IDAZKARIA